

TOKIKOM

2019ko martxoa | 190. zenbakia

aike!

txorierriko aldizkaria



Gure segurtasuna,
emakumeen
eskuetan



XVIII. TXAKOLINAREN EGUNA apirilak 14 LARRABETZU





Antolatzailea:

Laguntzailea:

 **LARRABETZU**
UDALA

bbk 

-  **4** Eritxiak
-  **5** Laburrak eta albisteak
-  **11** Irudietan... Maria Emilia Sanchez, postaria
-  **12** Gurean izan da... Asla musika taldea
-  **14** Gaztea eta... Josu Salas, arrantzalea
-  **16** Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatea
-  **18** Gai nagusia... Biotalde enpresa
-  **22** Uholde morea
-  **24** Korrika, Txorierrin
-  **26** *Egunak Derion* erakusketa
-  **28** Inauteriak
-  **30** Taldeak... Li Karate Loiu
-  **32** Mikel Zarateren heriotzaren 40. urteurrena
-  **35** Aikorrizketa... Jon Lopategi
-  **36** Sukaldaritza
-  **37** Denborapasa
-  **38** Agenda



22 Uholde feminista



24 Korrika, Txorierrin



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA**

**DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA**



diruz lagundutako aldizkaria



Argitaratzailea: TOTOAN, Txorierriko Euskara Elkarteen Federazioa (Lagatzu, Zorritzetan, Arrekikili, Tximintx eta Altzora)
Tel.: 94 452 34 47 / 688 86 41 35
aikortxori@aikor.com /
www.aikor.eus



Zuzendaria: Xabier Goienetxe

Erredakzio burua: Itxaso Marina

Erredakzio taldea: Maite Lekerika, Gaizka Eguzkitza, Juan Luis Goikoetxea

Kolaboratzaileak: Iñaki Atxutegi, Erika Pereda, Idoia Andres, Juanjo Ortiz, Alex Zallo, Jon Goikouria Larrabeiti, Txorierriko talde feministak, Itallen bertso eskola, Gaizka Peñafiel eta Jose Angel Mentxaka

Zuzentzaileak: Joseba Butroe, Iñaki Astorkiza eta Jagoba Zallo

Publizitatea: Arantza Atxutegi (686 58 92 38)

Banaketa: Egunon

Maketatzailea: Gaizka Eguzkitza

Inprimategia: Gertu

Ale kopurua: 8.000

Lege gordailua: BI 137-02 ISSN 1578-9322

Aikor! aldizkariak ez dau bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota eritxien erantzukizunik.



IÑAKI ATXUTEGI
kazetaria

Hauteskunde garaian gagoz, baina hau ez da kanpainare normala, ez horixe. Ez bat, ez bi... Bost urna izango doguz zain uritarrok hilabete pare baten bueltan. Eta hori gutxi balitz, Pedro Sanchezen malabarismo hirupistakoari esker, danak batera izan barik, Kongresuko eta Senaduko kutxatxoak deika izango doguz Pazko asteen, hilabete bat arinago besteak baino. Aste Santuan oporraldia, umeen jai egunak eta bestelako kontuak buruan egoteaz gainera, kanpaina izango dogu martxan.

Zirkuaren lengoia erabili dot eta bateren batek fundamentu faltea ikusiko dau

nire berbatan, baina ezin dot serio berba egin Sanchez, Casado, Rivera eta Canto lako pertsonak bizitza publikoa eta gobe-nantzaren erpinean dagozanean. Lagun artean poteak hartuten maila haundiagoa agertzen dogu eztabaidan eurek baino, zalantza barik.

Era berean, ez dakit barregurea edo lotsa emoten deustan Catalunya poce-sari buruz izan diran zenbait deklarazinok. Merezidu dau ordubete gastatzea Rajoyk eta Zoidok egindakoak entzuten. Edo SSSk (Su Santidad Sorayak, argitutearren) egindakoa. Benetan merezidu egiten dabez uritarrok pagetea (edo pagatu izan) deusteguzan soldatak? Eta era berean, jakin gurako neuke zenbat diru gastatu dan horren fundamentu gitxi daukan epaiketean. Baina, jakina, Espainiako interes sakrosant-uak eta hipergarbiak hori eta gehiago merezidu dau.

Danak daukaguz bizioak. Ez, ez naz hasiko nire sekretu guztiak kontetan honeetan lerrotan, baina bizio txiki bat kontauko dot: Espainiako prentsa kontser-

badorea irakurtea gustatzen jata, beste batzuk pipermina eta txokolatea batera jaten daben edota 200 kilometro bizikletan egiten daben modura, masokismo gustagarri lez. Bertsino gogorretan trifatxitoa-ren bozeroaleak aldarrikatu egiten dabe euskaldunak eta katalanak jente zibilizatu bakoa dala (nazala, ni barne!), euren (nire) pentsamendu primitiboa, formazino eta kultur faltearen ondorioa dala eta Espainiaren bidetik seriotasunea eta zibilizazioa jatorkuzala.

Eta nik, horren zibilizatu bakoa izanik, nire dosi masokistea hartu eta gero, ikusten dodaz Aitor Estebanek Cantori emondako jipoi dialektiko gogoangarriak, Iñigo Urkullu Lehendakariak edo Jordi Turullek Auzitegi Gorenean emondako deklarazioak, Joan Tardak, Jon Iñarririk edota Jokin Bildarratzek denboratan esandakoak eta argi gorria izetu egiten jata. Horreek zibilizatu bakoak, eta arestian aitaturtutakoak, zentzudunak badira, jarraitu egin gura dot nire zibilizazio faltan, irakurgai artean, aire (ez horren) garbiari muzin egiten.

Zibilizazioa?

Orain dela aste gutxi batzuk, Gure Señeak elkarteak antolatutako egunean tarte polit bat pasatu genuen etxeok. Eguraldi ederra, Deriotik ibilbide bikaina, lagunekin solasaldia, umeentzako ekintzak... baina egunaren mamian pisu handiko arrazoia: gaixotasun arraroren bat jasaten duenaren errealitateaz jabetzea. ELA, Cornelia de Lange sindromea, sortzetiko muskulu-distrofia... berdin du gaixotasuna zein den. Mariano, June, Mikele... dute izena.

Orain dela aste gutxi batzuk ere, Gizonezko Aktore Berri Onenaren Goya Saria desgaitasuna duen pertsona ba-

Pertsonak



ERIKA PEREDA
Kazetaria

tek jaso zuen, Jesus Vidalek, *Campeones* filmean aritzeagatik. Hitzaldi hunkigarria bota zuen, noizbehinka gogoratzeko modukoa, eta bere hitzen artean, hiru oso garrantzitsuak: inklusioa, aniztasuna eta agerikotasuna.

Euskadin biztanleen % 8k desgaitasuna bat du; eta gure gizarteak, pertsona horien bizitza normalizatzeko, ibilbide luzea aurretik. Bizitza aurrera eramateko erronka denok daukagu; aukera berdintasunekoa, aldiz, bakarrik % 8k dauka. Lagunduko diegu lan horretan?



Leire Etxaniz, txapelduna berriro



a: Emakume Master Cup

Martxoaren 17an, Emakume Master Cup Binakako txapelketaren finalak jokatu ziren Zumarragako Beloki frontoian. Pilotalekua leporaino bete zen eta Zumarragako Udalak Zelai Arizti zinema ireki behar izan zuen, pilotazaleek telebistaz finala ikusi ahal izateko. Lehenengo mailan, Leire Garai eta Leire Etxaniz izan ziren txapeldunak; eta promozio mailan, Uxue Oses eta Madalen Etxegarai.

Leire Etxaniz Etxebarriakoa da, baina Larrabetzun egiten ditu entrenamenduak Olarreta taldean. Etxanizek eta Garai arabarrak 22 eta 5 irabazi zieten Patri Espinari eta Mirian Arrillagari. Adituek finala orekatua espero zuten, baina txapeldunak hasiera-hasieratik nagusitu ziren eta ez zieten aurkariei irabazteko aukerarik eman. Leire Etxanizek orain arte

jokatu diren hiru binakako txapelketak irabazi ditu.

Promozio mailan, Uxue Oses eta Madalen Etxegarai oñatiarrek 18 eta 15 irabazi zieten Maria Granado eta Ainhoa Lakuntza gipuzkoarrei. Azpimarratzekoa da Etxegarai eta Osesek 13 urte baino ez dituztela. Txapeldunek beste sari bat lortu zuten, txapelketara pilotari gehien aurkeztu duen euskal kluba Oñatikoa izan baita.

Bestetik, Patri Espinar ikurrina zera-mala igo zen podiumera Bixintxo Bilbao pilotari lapurtarrari omenaldia egiteko. Bilbao Munduko Txapelketa irabazi zuen iaz eta podiumera, Frantziako banderaren ordeiz, ikurrinarekin igo zen. Nazioarteko Pilota Federazioko Diziiplina Batzordeak urtebetean nazioarteko lehiaketetan parte hartzeko debekua ezarri zion pilotariari, baina azkenean bertan behera utzi dute zigorra.

Zamudio Box taldeko boxeolariak, Bizkaiko txapeldunak

Otsailean, Bizkaiko boxeo txapelketak jokatu ziren Bilbon, La Casilla kiroldegian. Zamudio Box taldeko hiru boxeolari sartu ziren lehian, eta hirurek lortu zuten domina bana.

Boxeolari bi txapeldunak izan ziren eta urrezko domina bana lortu zuten. Junior kategorian (60 kg), Izaro Ungok irabazi zion Iraia Blancori (MTV Boxing); eta gazte mailan, oilar-pisuan (56 kg), Javier Manriquek, Iker Barkini (Galdakao). Hirugarrena, aldiz, txapeldunordea izan zen. Elite mailan (60 kg), Cristian Darwinek galdu zuen Youssef Hamyden kontra (Basakin). "Poz-pozik gaude, zelan ez. Taldeko hiru boxeolari etorri dira Bizkaiko txapelketara eta hirurek lortu dute domina bana. Txalogarria da. Oso harro gaude, hemengo boxeolari hiru Bizkaiko onenen artean daudelako", esan digu Josu Naranjo taldeko entrenatzaileak.



GOXO-GOXO LOHITZON
Arratsaldeko zabalik
Ogita egutero
Pastelak entzerguz.

Garaioitza, 77o
48196 Lezama
94 455 42 72
goxogoxolohitzon@hotmail.com

**PELUKERIA
ESTETIKA
LARRABETZU**

Anguleri nº 2 Bajo - 48195 LARRABETZU
Tel. 944 558 144

**SARRIKOLA
OGITEGIA**

Euskal pastela
Baserriko ogia
Bizkotxoak
Hainbat tarta

Sarrikola, z/g Larrabetzu
Tel.: 94 455 83 37
619 78 58 84

SOLAZPI

Goitioitza, 33 bis LEZAMA
620 15 36 93 - 94 633 81 07
9:00-20:00
www.centroecuestresolazpi.com
solazpi.zalditegia@gmail.com

**TURREGOITI
JATETXEA**

Laurola etorbidea, 27
48180 Lolu-Bizkaia
T-Faxo: 94 453 24 40
restauranteturregoit.com

Zamudiok beste behin du EAEko BPGd handiena

EUSTATEk, Euskal Estatistika Erakundeak, 2016. urtearen datuak jakinarazi ditu, eta, horien arabera, biztanleko barne-produktu gordinik (BPGd) handiena duten euskal udalerrietan jarduera industrialak dira nagusi. Beste behin, Zamudiok du BPGd handiena, eta bigarrena eta hirugarrena Olaberria (Gipuzkoa) eta Ajangiz dira hurrenez hurren. Laugarren postuan Txorierriko beste herri bat dago: Loiu.

2016an, batez besteko biztanleko BPGda 32.771 eurokoa izan zen: Euskal Autonomia Erkidegoko 96 udalerrik gainditu zuten batezbesteko hori (% 38); eta 155 udalerri ez ziren zifra horretara ailegatu (% 62). EUSTATEk sektore-banaketa aztertu, eta ondorio hau atera du: biztanleko BPGd handiena duten udalerrietan nagusi da industriaren sektorea; Olaberrian, Ajangizen eta Etxeberrin, esate baterako. Hala ere, Zamudion oreka handiagoa dago industria-sektorearen eta zerbitzu-sektorearen artean, eta horretan Bizkaiko Zientzia eta Teknologia Parkean dauden enpresek dute eragina, hala nola ingeniari-tza arloko zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresak



ren artean, eta horretan Bizkaiko Zientzia eta Teknologia Parkean dauden enpresek dute eragina, hala nola ingeniari-tza arloko zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresak

eta aeronautikari lotutakoak. Bestetik, Loiu zerbitzu-sektoreak du pisurik handiena, aireportuaren jarduerari lotutako zerbitzuak direla eta.

Aireportuak sortzen duen zarata ezagutzeko tresna ipini du herritarren eskura Aenak

Bilboko aireportuak Zarataren Mapa Interkatiboa ipini du udalen, herritarren eta erabiltzaileen eskura. WebTrak aplikazioa erabiltzen duen bisualizazio-sistema da, eta hegazkinen ibilbidea eta aireportuaren zarata-mailak jasotzen ditu. Zarata-mailak ezagutzeko, monitorizazio-terminal batzuk ipini dituzte inguruan.

Tresnari esker, erabiltzaileek hegazkinen mugimenduak ikusi ahal izango dituzte eta kodeari, altitudeari edo hegazkin-motari dagozkien datuak ezagutu. Hala ere, segurtasun-arrazoiak direla eta, 30 minutuko desfasea egongo da. Datuak 60 egunean egongo dira ikusgai. Bestal-

de, erabiltzaileek aireportuaren jarduerak eragiten duen zarata-mailak ezagutu ahal izango dituzte, eta zarata sortu duen hegazkinaren datuak jakin. Era berean, denbora-tarte bat edota eremu geografiko bat aukeratu ahal izango dituzte, hegazkinek egin duten zarata ikusteko bertan. Zarataren Mapa Interaktiboak etxebizitzaren baten eta horren gainean hegan egiten dabilen hegazkinaren arteko distantzia zein den ezagutzeko aukera ere emango du. Azkenik, WebTrak aplikazioaren bidez kexak eta horiei lotutako informazioa helarazi ahal izango zaizkio aireportuari, azter ditzaten.



Abelino Arraindegia

Gorbea kalea, 4 - 48160 DERIO
T: 94 602 75 25-6

BATZOKI LOIU

Eguneko menua
Asteburuko menua
Menu bereziak
Bakariak, enkarguz
Hamburguesak
Plater konbinatuak
Aniak
Otaratekoak

Abadetxe kalea, 8
LOIU
Tel. 94 612 95 35

elekma

URRATZAREN BAT DUTEN ETXETRESNA ELEKTRIKO BERRIK, TELEBISIAK ETA ETXETRESNA ELEKTRIKO TOSKAK

Lehenengo markak • Preziozko onenak
BOSCH, SIEMENS, BALAY

Txorien etorbidea, 25-3 N • 48180 LOIU
T: 944 539 232
www.elekma.es



a: Jon Goikouria Larrabeiti

Euskaraz irakurtzea sustatzeko kanpaina

Aurreko urteotan legez, Lagatzu Zamudioko euskara elkarteak bat egin du Irakurri, Gozatu eta Oparitu kanpainarekin. Ekintza Euskaltzaleen Topaguneak antolatu du hamahirugarren aldiz eta euskaraz irakurtzea sustatzea du helburu. Maiatzaren 31ra arte egingo da.

Udal liburutegian liburu bat maileguan hartu, eta hori itzultzen denean % 35eko balioa duen erosketa-txekea lortuko da. Txekea ekainaren 10era arte trukatu ahal da Zamudio liburu-dendan.

Bestetik, Liburuaren Egunaren haritik, Liburu Rallya antolatu du Zamudioko liburutegiak. Apirilean, hainbat libururen aipuak egongo dira han eta parte-hartzaileek asmatu egin beharko dute zein liburu den. Asmatzen dutenen artean 40 euroko txekeak zozketatuko dira Zamudio liburu-dendan gastatzeko. Zozketa maiatzaren 13an, 18:00etan, egingo da.



a: www.bibliotecadeviana.com

Motorzaleek hitzordua dute Loion

Txoribikers taldeak motorren kontzentrazioa antolatu du apirilaren 27rako. Ekitaldia zortzigarren aldiz egingo dute, eta egun osoan hainbat ekintza egongo da herrian. Izena ematea 10:00etan hasiko da, eta motorzaleak 11:30ean aterako dira errepidera ibilaldia egiteko. Gero, Loiura itzuliko dira hango tabernetatik beste ibilaldi bat egiteko.

Paella-jana edukiko dute eta 16:30ean motorzaleen jokoak egongo dira. Slalom erakustaldia ere egingo da, eta Debares taldeak -AC/DC abestiak jotzen dituzte- musika ipiniko diote arratsaldeari. Kontzertua 19:00etan hasiko da. Eta egun osoan opariak zozkatuko dira.



ADARVE KAFETEGIA

Gosariak
Plater konbinatuak
Pintxoak
GIRO ONA

Sallube, 2 DERIO Tel: 94 608 95 31

aldekone
hartz klinika
Tel.: 94 454 15 87

Anuska Prieto Aguilar
Odontologoa

Unibe 7, behea
48160 DERIO (Bizkaia)

- Especialitate gurtak zentro bakar baten
- Aurrekontua doan
- Especialitatea: umeak

MARMOLGINTZA GOYO

SUKALDE-GAINEKOAK ORRAK HILERRIAK

Ugaldeguren 1 ind. 18-B nabea
48160 Derio, Bizkaia
T: 94 454 02 93 - Faxa: 94 454 50 63

astikenemotor
www.ASTIKENEMOTOR.com

DERIO - 946 451 781

BIZKARGI KAFETEGIA
Euskal Herria Kalea
48160 - Derio (Bizkaia)
94 454 16 55

- Plater konbinatuak
- Ogitarkekoak
- Kaxolak

ELORRIETA INSTALACIONES

ETXE- ETA INDUSTRIA-ELEKTRIZITATEA

Unibe kalea, 12 behea Derio 48160
94 454 03 86
639 57 98 48 - 639 58 25 47

Campus teknologikoa

Teknogune Txorierriko campus teknologikoa da, eta lehenengo aldiz egingo da Derioko Kultur Birikan irailaren 23tik 25era bitartean. Campusa 16 urtetik 18 urtera bitarteko gazteentzat da eta horretan lau arlo jorratuko dira: robotika, bideo-jokoak, zientzia eta genetika. Izena emateko epea apirilaren 15era arte egongo da zabalik.

Campusa Gaztedi Txorierri programaren barruan dago, eta Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateak antolatutako Bizkaiko Foru Aldundia-rekin eta EGAZ Txorierriarekin batera. Doako autobusa ipiniko da gazteak Deriora hurbildu daitezzen. Informazio gehiago: <http://teknogune2019.txorierri.eu>.

Ioritz Aurrekoetxea, hirugarrena Reinosan

Martxoan Espainiako Biketrial Txapelketaren proba bat egin zen Reinosan, eta Ioritz Aurrekoetxea derioztarra hirugarrena geratu zen. Aurrekoetxea lehia bizian ibili zen Asturiaseko pilotu batekin bigarren postua lortzeko, baina azkenean hirugarrena izatearekin konformatu behar izan zuen. "Pozik gaude emaitzarekin", esan digu aitak. "Badakigu hutsegite inozo pare batengatik izan ez balitz, bigarren postua lortu ahal izango genuela".

Espainiako Biketrial Txapelketak hiru proba ditu: bigarrena Kordoban egingo da; eta hirugarrena, Katalunian.



The Beach Boys eta Ben Harper, artista nabarmenenak Sondikan



Antolatzaileek BBK Legends jaialdiaren kartela itxi dute. Jaialdian egongo direla konfirmatu duten azken taldeak hauek dira: Paul Collins Beat, Watermelon Slim eta Amann & The Wayward Sons. Hala ere, The Beach Boys eta Ben Harper & The Innocent Criminals dira aurtengo artistarik garrantzitsuenak. Horiekin batera, musikari hauek arituko dira: Little Steven and The Disciples of Soul; Suzanne Vega; Kitty, Daisy & Lewis; Anje Duhalde, Amann & The Wayward Sons eta Mississippi Queen & The Wet Dogs. Kontzertuak Sondikan, BBKren Ola zentroan, izango dira ekainaren 14an eta 15ean.

Dekker Events enpresak –BBK-ko babesarekin– antolatzen du jaialdia eta aurtengo bosgarren aldiz egingo da Sondikan. Antolatzaileen esanetan, jaialdiak bat egiten du BBKren egiten duen kohesioarekin eta gizarteratzearen aldeko apustuekin. Izan ere, musika, arte eta kulturaren bidez, jaialdiak publiko ezberdinak elkartzea, hausnarketa piztea eta herritarrak interelatzeari diu helburu. Aurreko edizioetan

egin duten moduan, antolatzaileek ingurumena zaindu nahi dute. Horretarako, ekologiari lotutako mezuak zabaldutako dituzte eta birziklatzea eta garraibide publikoak erabiltzea bultzatuko dute. Jaialdiaren txartelak badaude salgai dagoeneko. Egun biko bonuak, esate baterako, 95 euro –gehi gastuak– balioko du; eta egun batekoak, 55 euro –gehi gastuak–.

Beste alde batetik, aipatzekoa da jaialdia Iberian Festival Awards 2019 sariaren finalista dela, "Neurri ertaineko jaialdirik onena" eta "Portugaleko eta Espainiako jaialdirik onena" kategorietan. Sari horiek Iberiar Penintsulako 10 jaialdirik onenak hartzen dituzte aintzat. 2018an, besteak beste, Jeff Beck, Steve Winwood, Mavis Staples, John Cale, Wilko Johnson eta Glenn Hughes ibili ziren Sondikan. Antolatzaileek eskerrak eman dizkiete BBK Legends Festivalen aldeko boza eman duten guztiei. Era berean, adierazi dute finalista izateak ilusioa egiten diela, lan egiten jarraitzeko eta ahalik eta jaialdirik onena egiteko.

yedra floristas

Mikel Zarate, 2 - 48150 Sondika - Bizkaia
Telefona: 94 453 14 57 - yedrainterflora@hotmail.com

auzoKide
Finken administratzailea

LORENA GAMBOA AGUIRRE

Txorisol 4, beheka B
48150 SONDICA

634 410 470
auzokidefincas@gmail.com

Goiri'78 s.l.
Zerbitzu ofiziala

Izarza Pol.
48150 Sondika
Bizkaia

94 453 25 15
94 453 39 31

Derioko Seminarioan sexu-abusuak egon zirela salatu dute

Pederastia Derioko seminarioan artikulua argitaratu du Juan Mari Arregik *Argia* aldizkarian, eta orriotara eraman du bere testigantza. Azaldutakoaren arabera, sexu-abusuak 50eko hamarkadan izan ziren. Garai hartan seminarioko zuzendari espirituala zenak, Manuel Estombak, zakila ukitzen zien, higiene genitala aitzakiatzat hartuta. "... eskua sartzen zigun zakila nola garbitu behar genuen azaltzeko. Horretarako, bere egoitzako aukiararen ezker aldean ezartzen gintuen ondo-ondoan, prakak askatu, zakila aterarazi eta ukitu egiten zigun garbitasun kontuak argudiatuz. Aldi berean, besarkatu egiten gintuen ezker besoaz, eta bere masaila gurearen kontra estutzen zuen... Nola ez, aurretik, hori guztia inori ez kontatzeko esaten zigun!". Ikasleak 13 urtetik 15 urtera bitarteko gaztetxoak ziren. "Urteak igarota, horretaz hitz egin izan dugu, denoi, edo ia denoi gertatu zitzaigulako. XX. mendeko 50eko hamarkadaz ari gara. Orduan ez zegoen sexu-abusuen aurrean gaur daukagun kontzientziarik".

Urte batzuk beranduago, Estombak seminarioa utzi eta Ekuadorren eta Venezuelan ibili zen misiolari. "Sekula ez genuen zehazki jakin, baina bai imajinatu, gero ezagutzera eman zena: Deriotik Ekuadorrera aldatu zuten, zuzendari espiritual karguan zela nerabe apaizgaiei egindako sexu-abusuengatik. Bere apaiz bizitza Urkiolako santutegian amaitu zuen, Amerikako eta Afrikako misio diozesiarretan izandakoak hara egokitzen baitziren. Elizako agintariek ezkutatu eta isildu egin zuten, logikoena litzatekeenean ardura pastoral guztietatik apartatzea. Derion gehiegikeriak egin bazituen, Ekuadorren eta Venezuelan gauza bera egin zezakeen".

Artikuluaren, Astintze 53-70 elkarteak Javier Elzo soziologoari eskatutako inkestaren berri ere eman du Arregik. Inkesta 2009an egin zitzaizen seminariotik igaro zirenei, eta galderek inkestatuen ikuspegi pertsonala jasotzea zuten helburu. *Argian* adierazi dutenez, azterketak badu atal bat adingabeei egindako abusuen inguruko erreferentzia guztiak jasotzen dituen.



Giro ederra, Kepa eta Areneren oroimenezko lasterketan

Gure Señeak Derioko elkarteak Kepa eta Arene anai-arreben oroimenezko lasterketa antolatu zuen martxoan, zortzigarren aldian izan zen. "Guztira, 540 lagunek hartu zuten parte lasterketetan. Jende asko etorri zen eta giro ederra egon zen egun osoan. Oso pozik gaude", esan ziguten antolatzaileek.


Aurten, omenaldia egin diete Ibon Iza eta Tubi Bustinzari. "Gabonetan, elkartasun-eguna antolatu zuten Diman, bigarren aldiz, eta bertan batutako diruaren zati bat guri eman ziguten. Guztira 7.000 euro jaso genuen eta hori jendaurrean eskertu nahi izan diegu". Omenalditik aparte, lasterketak egin ziren, bai umeentzat, bai nagusientzat. "Parte-hartzaileek esaten digutenaren arabera, ibilbidea oso polita izan ohi da. Haiek ere pozik dabilta, beraz". Gainera, goizean umeentzako jolasak eta tailerrak egin ziren. Lasterketak bukatu zirenean, korrikalariek hamaiketakoa hartu zuten antolatzaileek atondutako karpa batean.

Lasterketa gaixotasun arraroak agerian uzteko bidea da. Izan ere, Derioko familia batzuek gaixotasun arraroren bat pairatzen dute. Familia horien seme-alabek gaixotasun-espekto zabala dute, hala nola Esklerosi tuberkuluduna, Angelman sindromea, Proud Levine Carpenter sindromea, fibrosi kistikoa, garun-paralisia eta autismoa. Kepa eta Arene anai-arrebak gaixotasun arraro baten ondorioz hil ziren, eta lasterketak umeak gogora ekartzea du helburu.





Argazki honetan, Joseba Zarraga, testigantza eman duen lagunetako bat; albokoan, Akaitze Kamiruaga, Labayru Fundaziokoa, materiala batzen.



Sondikako Udalak *Sondika, txori hegalarien habia* dokumentala egin du Labayru Fundazioaren laguntzarekin. Lan horretan, herriko historia hurbila jaso da hainbat lekukoren testigantzari esker.

“Dokumentalaren helburua orain dela urte bi aurkeztu genuen Lehentasunezko Planean jaso genuen: Sondikako oroitzapenak berreskuratu gura genituen. Hau da, Sondika aireportua egin baino lehen, esaterako, ezagutu zuten pertsonen testigantzak berreskuratu eta, etorkizunari begira, haren balioa azpimarratu”, azaldu du Xabier Zubiaur alkateak.

Lana bidaia da hiri-hazkundearen aurreko garaietara, eta hura herriko 10 lagunen eskutik egiten da. “Parte-hartzaile bakoitzak haurtzaroa izan du hizpide, gaztaroa, lana, baserriak, errota... Nagusiagoek oso ondo gogoratzen dituzte herrian orain dela ehun urte Sondikan zeuden baserrien izenak, zelako ohiturak zeuden... Horiek oroitzapen berriei uztartzen dira: industria, inauteriak, hezkuntza frankismoan...”.

Gaur eguneko Sondikak eta orain dela 100 urtekoak ez dute zerikusirik, herria goitik behera aldatu da eta. *Sondika, txori hegalarien habia* dokumentalak herriaren historia kontatzen du sondikoza-

Atzoko Sondika gogoan



ren ahotik. Besteak beste, gai hauek jaso dira: gerra eta gerraondoko urte latzak, anexioa eta desanexioa, eguneroko bizimodua eta jaiak. Dokumentalean duela 100 urteko argazkiak ere batu dira, eta

anekdotetarako ere lekua egon da. Esate baterako, aireportua egin zenean, hegazkin gutxi zebiltzanez, herritarrek handik pasatzen ziren beste aldeko lekuetara joateko.

HABAGITEGIA
URDAGITEGIA
IMAZ

MUNGIALDE ETORBIDEA,2
TLFNOA: 94 454 10 75
DERIO
Eskerrik asko
etortzeagaitik

Arantza Amondarain Lasa
Ginekologoa

Txarlen etorbidea, 9-4
413. bulegoa
48160 Derio

Telefona eta faxa:
94 454 44 98
a.amondarain@arantza.net

KAFETEGIA
IAZI
JATETxea

Jata kalea, 2 - DERIO
Tel.: 944 54 29 56



Maria Emilia Sanchez | iragarpen guztien aurka

Sondikako eta Loiuko auzotar askok erraz ezagutuko dute Maria Emilia kaskoa kendu barik. Hogeita bat urte daramatza Correosen lanean; eta 17 urte, gure haranean, eskutitzak eta paketeak gupil biren gainean banatzen. Txorierriko neguak gogorak izan arren, motorra oso gogoko du Sanchezek, eta ez dago euririk, txingorrik edo haizerik emakumearen lana oztopatzen duenik. Izan ere, lanean oso gustura dago eta esaten du bertako jendea oso atsegina dela.

Testua eta argazkia: Jon Goikouria Larrabeiti
@jongoikouria

Ai Maria Emilia
correos, Correos...
Hartuko genduke guk
behar dan beste poz,
bankuen agiriak
baztertuta behingoz
maite doguzan horren
gutunak baletoz!

Itallen Bertso Eskola



Kale garbiketa | Hondakinen bilketa eta garraioa | Ur eta estolda sareen mantentze lanak |
Hiri-altzarien mantentze lanak | Lorezaintza zerbitzuak | Eraikin eta lokalen garbiketa |
Hondartzen garbiketa zerbitzuak | Garbiguneen kudeaketa eta mantentze lanak | Lurzoruen
deskontaminazio lanak | Ingurumen-aholkularitza | Beste zerbitzu batzuetarako, galdetu.

Ibáñez de Bilbao, 3, 2. solairua, 48001 BILBAO

TEL. 94 424 38 34

**NEURTU
ZURE ERAKUNDEAREN
HIZKUNTZA EGOERA**

6 PAUSOTAN

ZUK ZEUK, AZKARETA ERRAZ

**BETE ZURE
AUTO-DIAGNOSTIKOA**



bai
euskarari

baieuskarari.eus
/baieuskarariziurtagiria
@baieuskarari

Ziurtagiriaren
Elkartea

Lan eta bizi euskaraz

"Nire musika oso pertsonala da"

OIER ASLA | Asla taldea

Hori Bai gaztetxea areto garrantzitsua da Txorierrin. Izan ere, abeslari eta talde euskaldun onenek bertan eskaini dituzte kontzertuak. Batzuetan hasiberriak ere aritzen dira Larrabetzun, eta horietako bat Asla izan da. Bilbotarrak bere maketa aurkeztu zuen bailaran eta AIKOR! aldizkariak ez du bera ezagutzeko aukera alferrik galdu.



t: Gaizka Eguzkitza / a: Txaber Miravalles

Zelan Larrabetzuko kontzertua?

Oso ondo, oso pozik nago. Gu eta antolatzaileak gustura ibili ginen, eta esan digutenaren arabera, publikoa ere bai. Askotan joan naiz Hori Bai gaztetxera kontzertuak ikustera, eta orain neu izan naiz agertokiaren gainean ibili dena. Lekua oso berezia da, atsegina, eta giro polita sortu zen kontzertuan. Normalean tabernetan-eta eman ditugu kontzertuak eta zarata asko egoten da han. Gainera, batzuetan jendeak ez dizu jaramon handirik egiten. Ostera, Hori Bai gaztetxean jendea jesarrita egoten da, norberari begira... Erabat desberdina da.

Zelan hasi zinen musikan?

Hasiera-hasieran, familiarengatik. Aitak gitarra jotzen zuen, baita lehengusu Garik ere. Berak kanta propioak egiten zituen

eta hori harrigarria iruditzen zitzaidan. Ez nuen uste ni neu egiteko gai izango nintzenik. Baina, ia nahi gabe, lehenengoa atera zitzaidan, eta handik aurrera beste batzuk etorri dira. Geroago, 2001ean, institutuan nengoela, Malda taldea sortu nuen anaia eta lagun birekin batera. Hiru urte geroago, taldea desegin zen eta urte batzuk eman nituen jendaurrean ezer egin barik. Nire kabuz kantak egiten jarraitu nuen eta 2012an hasi nintzen bertsioek osatutako kontzertuak eskaintzen tabernetan. Handik gutxira, kontzertu parte-hartzaileak ematen hasi nintzen, zuzeneko karaokeak, nolabait esanda. Eta 2016an nik egindako kantak abestu nituen lehendabiziko aldiz jendaurrean. Horrek jendaurrean berriro jotzeko egiteko gogoia eman zidan eta horrela sortu zen Asla.

Zer da musika zuretzat?

Musika barruan duzuna kanpora ateratzeko modu bat da; bestela, jendearekin konpartitzen ez baduzu, musika egiteak ez du zentzu handirik. Nire musika oso pertsonala da: norbera bakarrik, gitarrarekin, agertoki gainean... Baina oso gustura sentitzen naiz.

Zelan izan da aldaketa: hasieran, kontzertu parte-hartzaileak; orain, Asla taldea?

Ez dute zerikusi handirik. Kontzertu parte-hartzaileak informalagoak dira. Horiei esker, jendaurrean egoten ikasi dut. Asla taldean, ordea, nire hitzak dira, barrutik ateratakoak, eta horrek ardura handiagoa ematen dit.

Maketa grabatu duzu eta Gaur bi-deoklipa ere argitaratu duzu eta Interneten dago ikusgai. Nolako taldea da Asla?

*"Hori Bai gaztetxea
oso berezia da,
atsegina, eta giro
polita sortu zen
kontzertuan"*

*"Benetako disko bat
grabatzea dut amets.
Eta noizbehinka,
kontzertuak emateko
aukera izatea"*

Derioztar baten semea

Oier Asla Iglesiasek (Bilbo, 1978) Biologia ikasi zuen, baina gaur egun administratibo egiten du lan Basauriko Udalean. Nahiz eta Etxebarrin bizi, lotura handia du Txorierrirekin, ama Derio-koa baita. "Izeko oraindik han bizi da, Logabaz aldean. Alboan, familiak etxetxo ere badauka eta batzuetan han batzen gara", esan digu Oierrek. Ama hain da garrantzitsua, ezen mutilak bere abizena hartu baitu taldeari izena emateko. "Asla amaren abizena da. Aspaldian, abizenen ordena aldatu nuen eta amarena lehenengoa jarri nuen. Hori berezia denez, taldea proiektu pertsonala

denez eta abizena gustuko dudanez, Asla aukeratu nuen".

Musika beti izan da Oierren bizilaguna. Normalean tabernetara joaten da kontzertuak zuzenean ikustera. Musikazale amorratua da eta Berri Txarrak bere talde kuttunetako bat da. Garai txarra Gorka Urbizuren taldearen zaletua izateko, nafarrek musikari utziko diotela iragarri dutelako. "Aspaldian ezagutu nuen Berri Txarrak taldea, hasiera-hasieran, maketa grabatu zutenean, inork ezagutzen ez zituenean. Ondoren, maketa horri esker, Euskadi Gaztea irratiko saria irabazi zuten".



Pop-rock estiloko taldea gara. Nire abestiak kantatzen ditugu. Lehenengo kontzertua bakarrik eman nuen, baina harrezkero Gurutze Etxebarria ere taldean dago. Momentuz formatu akustikoa jorratzen dugu, bi bakarrik gaudelako, baina etorkizunean banda formatuko talde bat osatzeko asmoa dut. Eta hori da, hain zuzen ere, *Gaur* bideoklipean erakusten duguna. Bideoklipa Gorlizeko No Studios

estudioan egin genuen, Joseba Azabalen eskutik. Imanol Pagarizabal (bateria), Mikel Torrijos (baxua eta saxofoia) eta Andoni Arrizabalaga (gitarra) musikariek ere hartu zuten parte bertan. Ibilbidea pausoz pauso gabiltza lantzen: maketa eta egin ditugu, orain Taupaka kultur elkartearen kide egin gara, haiek gure agenteak izateko...

Aslan ez zaude bakarrik. Zer ematen dizu Gurutze Etxebarria abeslariak?

Berak Gurutze's Manouches jazz taldean abesten du eta, bestetik, bai nirekin ere. Bere kontzertu batean ezagutu nuen, taberna batean. Gurutzek izugarrizko ekarpena egiten dio taldeari. Beste mundu musikal batetik dator, baina gure ahotsek primeran egiten dute bat. Oso aberasgarria da, izugarrizko balioa eman dio proiektuari.

Zein da zure helburua? Ametsen bat duzu musikan?

Gaztea ez naiz, baina hasiberria, bai, ordea. Eskarmentua badut, baina ez naiz proiektu serio batean; ez behintzat Asla bezalako talde batean. Ametsak bata bestearen atzetik etortzen dira, hau da, bat lortzen duzunean, beste baten bila zabilta. Gaur egun, benetako disko bat grabatzea dut amets. Eta noizbehinka, kontzertuak emateko aukera izatea, baldintza duinetan. Gehiagorik ez dut behar, eta gehiagorik ez dut eskatzen. Zorionez, datozen asteotan, zenbait kontzertu emango ditugu.

Asla jarraitzeko:

Facebook, taupaka.eus,
Instagram eta YouTube

LEIRE BEGOÑA
ULE-APAINDEGIA
MUNGIALDE ETORBIDEA, 20
48160 DERIO
94 454 26 32
Jarrai izuguru Facebook-en

LOREGARBI GARBIKETA ZERBITZUAK
Guri-itsusiak, orokorren
Autokorren konsumatzaileak
Mantentze garbi-itsusiak
Iturriak eta lokalak
Orra amariak garbikerak
Zabur hileak
Besalde Plaza, 1 - B° Aldekone Tel: 94 406 49 92
48160 DERIO (Bizkaia) 656 712 443
loregarbi@euskalnet.net Fax: 94 406 49 93

Nire Autocasion MA
IMPORTAZIOA ETA
SALMENTA
MUNGIALDE ETORBIDEA, 3 48160 DERIO-BIZKAIA
Mobilak: 686 97 06 41 - 649 16 77 12
Telefonos-Fax: 94 454 51 92
www.nireautocasion.com info@nireautocasion.com

Arrantzale ipurtarina

JOSU SALAS | arrantzalea



Josu Salas derioztarra arrantzaren zale amorratua da. Arrantza egitera eguraldiaren iragarpena ona denean onena orduan joatea bada ere, berak ahal duen guztietan hartzen du kanabera eta hurrengo arrainaren bila irteten da. “Batez ere domeketan ibiltzen naiz arrantzan, egun horretan libre dudalako. Goiz jaikitzea gustatzen zait eguna aprobetxatzeko, baina, osterantzean, berdin dit gauean, goizean edo arratsaldean joatea: arrainak beti daude uretan!”

t: Itxaso Marina Ondarroa / a: J.S.

Salas oso gaztetxoa zela – kanaberari ozta-ozta heltzen zion– hasi zen arrantza egiten. “Ume askoren moduan salabardoarekin eta kuboarekin hasi nintzen, harik eta aitik lehenengo kanabera erosi zidan arte; baina berari ez zitzaion arrantza gustatzen”, azaldu digu. Gazteak ondo gogoratzen du lehenengo kanabera hori. “Ibaian erabiltzeko 1,80 metroko kanabera zen, urdina eta, amaieran, zuria. EVA aginte beltza zuen, eta atzeko balazta txiki bat. Kanabera arina eta txikia zen, nik erabiltzeko modukoa”.

Derioztarrari beti gustatu zaio naturan ibiltzea; horregatik ez da arraroa zaletasun hau izatea. “Arrantzak harrapatu nau, besterik ez; suposatzen dut barruan dudala”. Gainera, arrantzak beste erakargarritasun bat du: horri esker hainbat leku ezagutzen dira. “Bakoitza berezia eta paregabea da

*“Ume askoren moduan
salabardoarekin eta
kuboarekin hasi
nintzen, harik eta aitik
lehenengo kanabera
erosi zidan arte”*

*“Toki bakoitza
berezia eta
paregabea da eta
gustukoenak buruan
gordetzen zoaz”*

eta tokirik gustukoenak buruan gordetzen zoaz. Oraindik leku asko daude aurkitzeko”. Gazteak Kantabrian eta Euskadin egin ohi du arrantza, “baina aukera dagoenean Galiziara eta Asturiasera joaten gara. Eta Mediterraneora, Gironara, Ebroko deltara...”. Goi mailako kanabera eta karrete japoniarrak erabiltzen ditu. “Horiek Kelman–Ultimate Fishing elkarteak ekartzen ditu penintsulara. Nik kolaborazioak egiten ditut enpresa horrekin; hau da, euren ekipoa erabilia harrapatu ditudan arrainei argazkia ateratzen diet, zaletuek ikus dezaten ekipo bakoitza zein egoeratan erabil daitekeen”. Aitortu dutenez, nahiko diru ipintzen du arrantzan. “Alabaina, ez da beharrezkoa; ekipo merkeak erabilia ere arrantza egin daiteke”.

Behaketa-ariketa

Ur gezatan zein ur gazitan ibiltzen da arrantzan: itsasoan lupia bila joaten da; eta ibaietan, amuarraian edo arrankari bila.



Argazki-kamara ere aldean

Arrantzara joaten denean, Josu Salasek arrantza-ekipoa ez ezik argazki-kamara ere aldean eramaten du. Izan ere, argazkigintza derioztarren beste zaletasun bat da. Lehenengo kamara 15-16 urte zituela erosi zuen, horretarako aurreztu zuen diruarekin. "Argazki-kamara edozein lekutara dator nirekin. Leku lasaiak fotografiatzea gustatzen zait: jende gutxi dauden txokoak, naturari lotutakoak". Argazkilaria zaletua izan arren, gazteak gaitasun handia du eta hori agerian dago bere lanetan.

Salasek anatomia patologikoa ikasi du, eta gaur egun Decathlonen kirol dendan egiten du lan; ehiza eta arrantza atalean, jakina.

Ur gezatan zein ur gazitan ibiltzen da arrantzan: itsasoan lupia bila doa; eta ibaietan, amuarraín bila

"Etengabe zabiltza arrainei begira, eta saiatzen zara zer pentsatzen ote duten ulertzen"



Spinning teknika erabiltzen du. "Oso modalitate aktiboa da: beti ibili behar duzu mugitzen, arrain bila eta horien portara ikasten. Teknika hori bat dator nire izaerarekin: ipurtarina naiz eta jakingura handia dut. Bestetik, euli-modalitatea oso gutxitan erabiltzen dut; beti edukiko dut zera egiteko, teknika horri ordu gehiago eskaintzea". Arrantza etengabeko behaketa- eta ikasketa-ariketa da. "Etengabe zabiltza arrainei begira, eta saiatzen zara zer pentsatzen ote duten ulertzen; itsasal-

diek, ilargiak, tenperaturak eta urtaroei haiengan zer nolako eragina duten... Askok ikasten da. Dena dela, nik uste dut arrainei buruz zenbat eta gehiago jakin, orduan eta gutxiago ezagutzen ditudala.

Arrantzaleak ondo gogoratzen du harrapatu zuen lehen arrain handia. "Aitarekin batera harrapatu nuen, herriko ibaian. Kanabera zuhaitz erori baten kontra nuen jarrita eta tolestu egiten zen, oso arrain handia zen eta. Aitak atera behar izan zuen uretatik; nik, ezin. Beti izango da

arrain berezia". Oraindik espezie asko dauka harrapatzeko. Hainbeste, ezen Salasi zail suertatzen zaio horien guztien artean aukeratzea. "Roosterfish, Giant Trevally, Brook Trout, mundu osoko izokinak, mero zuriak... Saiatuko naiz pixkanaka-pixkanaka atentzioa ematen didaten espezie horiek guztiak harrapatzen". Horrela izan arte, arrantzarekin gozatzen jarraituko du, leku berriak ezagutu eta ibaietan, hondartzetan eta itsaslabarretan galtzen den bitartean.

Txorierriko Batxilergoko 40 ikasle gehiagok errealitate profesionala ez

Horretarako, egun bateko egonaldia egin dute eskualdeko enpresetan; esate baterako, ITP Aero eta ZIV Automation ingeniaritza enpresetan, IMQ Zorrozaurre klinikan, Semtek Therapeutics eta Aleoviro laborategietan, Ertzaintza eta Bizkaiko Suhiltzaileen egoitzetan eta Bizkaia eta Etorkintza fundazioetan. Ekimenak gazteen enplegua hobetzea du helburu eta Gaztedi programaren baitan dago. Programa hori Txorierriko Mankomunitateak eta Erandioko Udalak sustatzen dute, Bizkaiko Foru Aldundiarekin batera.



Bizkaiko Zientzia eta Teknologia Parkean, AleoViro enpresak lau urte daramatza landareen in vitro ugalketa ikertzen. Esparru horrek aplikazio nabarmenak ditu farmakologian, baina baita desagertzeko arriskuan dauden espezieak berreskuratzeari begira eta hazien bidez transmititzen diren gaixotasunak osatzeko ere. Halaber, eliteko kirolarientzako profil metabolikoak aztertzen dituzte.

Ekimena bi pertsonaren elkarlanaren emaitza da. Antonio Laso Garciak, Kimika Organikoan doktoreak, eta Eneko Ochoa Larringanek, Biologian lizentziatuak, erabaki behar izan zuten: emigratu eta kanpoan etorkizun hobea bilatu ala Bizkaian gelditu eta beren enpresa-proiektuaren alde borrokatu. Bigarren aukeraren alde egin zuten. Lau urte igaro dira ordutik, eta ekintzaile horien proiektua eta eguneroko lana inspirazio izan dira Begoñarentzat.

Bera Txorierriko Politeknikan Batxilergoko 2. maila ikasten dabil. Programari esker lanegun bat igaro du laborategi batean, oinarri errealista batetik abiatuta bere ibilbide akademiko eta profesionala norantz bideratu nahi duen erabaki ahal izateko.

“Biologia gustatu zait beti, batez ere Biologia Zelularra, eta Biomedikuntza eta Biokimikako graduren bat egiteko asmoa nuen. Baina orain badakit Kimika Laborategi eta Biologiako gradua dagoela, eta biak egingo ditut”, adierazi zuen Begoñak goiz osoa AleoViroren instalazioetan igaro ondoren.

Begoña Txorierriko Batxilergoko ikaslea da, eta, beste 47 lagunekin batera, EGAZ Txorierrik antolatutako enpresetako egun bateko egonaldietan parte hartu du, bere etorkizunari buruzko erabaki arrazoituago bat hartu ahal izateko. Ekimena Gaztedi programaren baitan egin da, eta

gazteen enplegua hobetzea da bere helburua. Programa Txorierriko Mankomunitateak eta Erandioko Udalak sustatzen dute, Bizkaiko Foru Aldundiarekin batera finantzatuta, eta Politeknika Ikastegia prestakuntza-zentroaren lankidetzarekin. Programan Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatea osatzen duten sei udalerrietako edozeinetan erroldatutako Batxilergoko ikasle guztiek har dezakete parte. Gazteei hainbat sektoretako enpresa laguntzaileetan egun bat igarotzeko aukera eskaintzen zaie. Horrela, modu indibidualean hautatutako errealitate profesionala hurbiletik ezagut dezakete, hainbat sektoretako enpresetan egun bateko egonaldia eginez; eskaintzak ikasle bakoitzaren eskaeraren arabera diseinatzen dira. Esperientzia honek babes gisa balio du, eta hari esker, gazteek hastear duten ibilbide profesionala hobeto hautatzen lagun dezake.



ek baino agutu dute

Informazio osagarria

Horietan guztietan, Batxilergoko ikasleek aukera dute langile profesional bati laguntzeko, hark ikasleei etorkizunerako interesatzen zaien lana gauzatzen duen bitartean. Modu horretan, zuzenean eza gutzen dute lan-munduaren errealitatea, eta beren zalantzak eta galderak plaza-ratu ditzakete erabakia hartzeari begira; izan ere, zalantza horiek profil profesional horretako langileek erantzun ahal dituzte bakarrik.

«Informazio akademikoaren osagarri den informazio orok asko errazten du gero goi mailako ikasketetarako sarbidea; hortaz, hautatu baino lehen jakitea oso ondo dago», esan dute AleoVito enpresakoek. Halaber, nabarmendu dute oso positiboa dela gazteen aurrean Euskadiko inguru zientifiko-teknologikoa ikusgai jartzea. «Ikusgaitasun-faltak bokazioekiko estimulua itzaltzen du, eta interes txikiagoa dago diziplina zientifikoekiko», halaxe adierazten dute ikastegi profesionalek eta unibertsitateek. «Gazteek, azkenean, lanik errazena bilatzen dute, eta azkenean lanean non amaituko duzun oso argi ez dagoen adar zientifikoak hautatzen dituzte. Hori dela eta, oso garrantzitsua da egoera zuzenean ezagutzeko aukera izatea», azpimarratu dute.

Enpresan, gazteei gomendatzen die «hasiera batean» gustatzen zaiena ikas dezatela. «Lana, hemen edo atzerrian, iritsiko da noizbait, zientziaren lengoia unibertsala baita», esan dute. Horrez gain, nabarmendu dute bokazioen eta Bizkai-ko eta Euskadiko lan-aukeren arteko harremana berrelikatzen dela. «Ekosistema hazten bada, jende gehiagok eskatuko du».

Enpresetako egonaldiez gain, programak lan-munduaren errealitatera hurbiltzeko beste modu batzuk ere eskaintzen ditu; adibidez, enpresa eta erakundeetarako bisitak edo sektore-mahaietakoak. Horietan, IDDEK eta ZIV bezalako enpresetako profesionalek ikastetxeak bisitatzen dituzte gazteei enpresa-errealitatearen berri zuzenean emateko eta beren esperientziak kontatzeko.

Txorierriko 21. Ipuin Lehiaketaren sari-banaketa

Urtero bezala, Mankomunitateak Txorierriko Ipuin Lehiaketa antolatu du eta azken edizio honen sari-banaketa otsailaren 22an izan da Baserri Antzokian. Bertan 300 pertsonatik gora batu dira sariak jasotzera eta Asier Kidam magoaren ikuskizunarekin gozatzera. Azken edizioan 400 ipuin aurkeztu dira hainbat kategoriatan banatuta, eta adin guztietako herritarrek hartu dute parte, sei urtetik eta 45 urtera artekoek, hain zuzen ere. Zorionak saridun guztiei eta mila esker parte hartu duten guztiei.



INFO GEHIAGO

www.osasunarenlasterketa.com

APIRILAK 7

TXORIERRIKO OSASUNAREN ALDEKO KARRERA-MARTXA

IBILBIDEA
7 edo 9 km Txorierri zehar Lezamarik Larraitzera

IRTEERA - 11.00 etan
Bizkaitar Korrika Oinez

PREZIOA
Txikiak (14 urte arte) 3€
Helduak 5€

IZEN EMATEA
www.karreraportasalud.com
www.osasunarenlasterketa.com

JAI AMAIERA
11.30 etatik 15.00 etara

DISKO-FESTA: OIHAN VEGA, zozketak, puzgarriak, familia eta txikientzako jarduerak.

Autobusa egongo da doan Larraitzetik Lezamara 10.00etatik aurrera eta karrera-martxa amaitzean Lezamara bueltatuko da. Azken bidaia 16:30 etan.

LORTUTAKO DIRU GUZTIA

ELKARTEEI EMANGO ZAIE

Aitzindariak

Nieves Zabala Arriaga larrabetzuarrak eta Susana Echenagusia Capelastegui durangarrak Biotalde enpresa sortu zuten 1988an. Enpresak elikagaien eta ingurumenaren segurtasunean dihardu, eta garai hartan Bizkaian ez zegoen arlo horretan zerbitzurik eskaintzen zuen laborategi pribaturik. Gaur egun 12 langile dira, eta, saltzailea izan ezik, guztiak dira emakumezkoak.

t: Itxaso Marina Ondarroa / a: Biotalde

Zabala eta Echenagusia biologoak dira eta Bilboko Udaleko laborategian praktketan zebiltzala ezagutu zuten elkar. "Elikagaien kalitateari lotutako eskakizunak gero eta handiagoak ziren, eta konturatu ginen enpresa txiki askok ez zutela aditurik eskakizunoi erantzuna emateko. Gainera, laborategi pribaturik ez zegoen eta laginak kanpora bidali behar izaten ziren analizatzera", kontatu digute. "Aukera ikusi genuen eta laborategia ipini genuen martxan: batez ere analisi mikrobiologikoak egiten genituen elikadura-toxoinfekzioak ekiditeko. Handik gutxira arautu egin zen enpresei arriskuak kudeatzeko planak osatzeko betebeharra, eta hasi ginen bezeroei plan horiek egiten laguntzen".

Urteek aurrera egin ahala, merkatu-nitxo berriak etorri ziren. "Giza kontsumorako ur-arloan ere hasi ginen lanean: lantegietan, hozte-dorreetan, kiroldegietan... Gainera, Euskadin lehenengo laborategia izan ginen legionella analizatzen, eta horrek negozio-aukera handia ekarri zigun. Garai hartan ez zegoen ez araurik, ez metodorik, eta guk Australiako metodo bat erabiltzen genuen; aitzindariak izan ginen. Gero, Estatuko eta Euskal Autonomia Erkidegoko dekretuak etorri ziren, eta hasi ginen enpresei laguntza ematen legionella prebenitzeko: zer den, nolako neurriak hartu behar diren...". Negozio-aukera berriek laborategiko langile-kopurua handitzea ekarri zuen. "Guk argi dugu hemen bagaude hori dela praktikak egiteko aukera eman zigutelako. Horregatik dugu hitzarmena Euskal Herriko Unibertsitatearekin eta Lanbide-heziketaren ikastegi batzuekin. Ikasleak gure laborategira etortzen dira praktikak

"Euskadin lehenengo laborategia izan ginen legionella analizatzen; Australiako metodo bat erabiltzen genuen"

Garrantzi handia ematen diote lan-bizitza eta bizitza pertsonala uztartu ahal izateari

Hasieratik egin dute elkartzearen alde: besteak beste, AELI eta Basque Health Clusterreko kideak dira

egitera eta, gainera, beharrianen arabera, batzuk kontratatu egin ditugu. Langile guzti-guztiek aurretik egin dituzte praktikak gurean". Langile guztiak emakumezkoak dira. "Iaz gizon bat kontratatu genuen komertzial moduan, baina, bestela, guztiok gara emakumeak. Ez da enpresaren politika; gertatzen dena da sektore mikrobiologikoan emakume gehiago gaudela. Horrela sortu da eta ondo joan zaigu". Ezaugarri horregatik, beharbada, garrantzi handia ematen diote lan-bizitza eta bizitza pertsonala uztartu ahal izateari. "Hona ez gatoz orduak betetzera, baizik eta bezeroekin hartutako konpromisoak betetzera. Orduategia malguta da eta elkarrekin konponduz



goaz. Egia da lanaren zati bat –analitikak– laborategian bertan egin behar dela, baina beste zatia etxean egiten daiteke, hala nola txostenak, aholkularitza eta pentsatzeari edo berritzeari lotutako lana".

Zerbitzuak

Lantaldea 12 pertsonak osatzen dute: ingeniari kimikoak, biokimikariak, laborategi-teknikariak, eta elikagaien zientzian eta teknologian adituak, tartean. Zabala da enpresako zuzendaria; eta Echenagusia, kalitate eta sistemetako zuzendaria. Zerbitzua bezero-sorta zabalarri ematen diote: "Zahar-etxeak, gozotegiak, elikagiegintzako enpresak, ur- eta klimatizazio-





sistemekin dabilzan enpresak... Baita arazoa sor dezaketen aspektu biologikoak dauden edozein industria-prozesu ere: adibidez, autoak egiten dituen enpresa bat”.

Biotaldek elikagaien eta ingurumenaren segurtasunean egiten du lan, eta bezeroei laborategi-, aholkularitza- eta heziketa-zerbitzua eskaintzen die. “Elikagaien segurtasunari dagokionez, enpresara joan eta oso azterketa zorrotza egiten dugu: zeintzuk diren lehengaiak, nor den hornitzailea, lehengaiak non uzten dituen, produktuaren ekoizte-fase guztietan zer egiten den, nola eta non... Prozesu osoa ikuskatzen dugu eta osasunerako arriskutsuak diren organismo patogenoak nondik sar daitezkeen aztertzen dugu. Jarraibideak ematen dizkiegu jokabide desegokiak zuzendu ditzaten eta, beharrezkoa bada, prozesua modu jarraituagoan ikuskatzen dugu. Era berean, garbiketari eta desinfekzioari lotutako heziketa ematen dugu, eta alergenoei buruzko aholkularitza ere bai, informazioa kontsumitzaileei jakinaraz diezaieten”.

Urari dagokion prozesua antzekoa da. “Esaterako, hilero joaten gara igeritokitara: ura hartu eta legeak agintzen duena betetzen ote duen aztertzen dugu. Bestetik, gero eta garrantzi handiagoa du barneko airearen kalitateak; hau da, airearen egoera eta osasun baldintzak egokiak izatea, bulegoan edo bestelako instalazio batean ez gaixotzeko. Arlo honetan ere bagabiltza”.

Zabalak eta Echenagusiak jakin badakite bizitzan ezin dela bakarrik ibili, eta hasiera-hasieratik egin dute elkartzearen alde. Besteak beste, elkarre hauenak ki-deak dira: AELI (Estatuko laborategi independenteen elkarte), FELAB (Europako laborategien elkarte), AVECAI (Barneko aire kalitatearen euskal elkarte), Basque Health Clusterra eta Elikaduraren

Clusterra. “Bestalde, 90eko hamarkadan BIOTECekin – orain Gaiker– egin genuen bat. Izan ere, gurea enpresa txikia da eta ez dugu ahalmenik geure kabuz ikertzeko. Beraz, hori izan da I+G egiteko eduki dugun bidea. Izan ere, gure helburua hau da: elikagaietan, uretan eta airean dauden organismo patogenoak ahalik eta azkarren eta modu eraginkorrean diagnostikatu, bezeroek neurriak lehenbailehen hartu ahal izateko”.

Proiektuak

Azkartasunari begira daude, hain zuzen, oraingo proiektuak. “Aurrerapen handiak eta asko izan dira elikagaiak, ura eta

airea kontrolatzeko orduan, baina joera da informazioa berehalakoa izatea. Ohiko mikrobiologia erabiltzen dugu eta, ondorioz, kasu batzuetan egunak pasatzen dira harik eta bezeroari emaitza ematen diogun arte. Baina enpresek emaitza lehenbailehen jakin nahi dute, neurri zuzentzaileak ezartzeko. Hori kontuan hartuta, ikerketa ildo honetatik doa: modu jarraituan monitorizatzen duten biosentsoreak topatzea, zeinek, gainera, zerbait txarto joanez gero, mugikorrera alerta bat bidaltzen baitute. Gauzen internetekin (Internet of Things) edo Big Dataren zerikusia duten detekzio-metodoak dira, eta azkarrek eta fidagarriak izan behar dute”.



Biotaldeko sortzaileek ez dute baka-
rrik negozioan pentsatu nahi: balioei ere
ematen diete inportantzia handia. "Kon-
promiso handia dugu bai pertsonekin,
bai ingurunearekin. Lantaldea oso garran-
tzitsua da guretzat, eta oztopoak oztopo
hura babestu egin dugu krisialdietan. Hori
dela eta, harremana izan nahi dugu herri-
tarrekin eta ingurunearekin kezkatzen di-
ren enpresekin. Gure ustez, funtsezkoa da
negozioaz gainera beste kezka batzuk ere
badituzten enpresekin sare bat sortzea:
hau da, balioak kontuan hartzen dituen
mozkina. Horri lotuta, hauek dira gure
kezkak eta proiektuak: elikadura osasun-
garria, eraikin osasuntsuak eta pertsona
konprometituak. Enpresa osasuntsuekin
egiten dugu bat!".

Emakume aitzindariak dira Zabala eta
Echenagusia, eta Biotalde duela urtebete
ekarri dute Txorierrira, Deriora, hain zuzen
ere. "Galdakaoko instalazioak txiki geratu
zitaizkigun, eta leku hau topatu genuen.
Aukera polita izan da. Gainera, hurbil gau-
de gure bezeroengandik eta Zientzia eta
Tecnologia Parketik. Oso pozik gaude".
Urte askorako, beraz.



*"Lantaldea oso
garrantzitsua da
guretzat, eta oztopoak
oztopo hura babestu
egin dugu krisialdietan"*

*"Konpromiso handia
dugu bai pertsonekin,
bai ingurunearekin, eta
enpresa osasuntsuekin
egiten dugu bat"*

Libre dagoen txoriak fazil egiten du barre

txori tokia



TXORIERRIKO UDAL
EUSKALTEGIA

EUSKALTEGIETAN MATRIKULATUTAKO IKASLEEN EGIAZTATZE-DEIALDIA 2019

A1, A2 eta B1 ebaluazio jarraitua.

B2, C1 eta C2 azterketa deialdia.

Matrikula-epea:

Apirilaren 3-10 bitartean

Onartuen zerrenda:

Apirilaren 12an

**Entzumeneko eta irakurmeneko
probak euskaltegian:**

Maiatzaren 4rako

**Entzumeneko eta irakurmeneko
proben emaitzak:**

Maiatzaren 8an

Idazmeneko proba:

Maiatzaren 11n

Idazmeneko emaitzak:

Ekainaren 14an

Mintzameneko proba:

Ekainaren 20an, 21ean eta 22an (B2)

Ekainaren 27an, 28an eta 29an (C1)

Ekainaren 29an (C2)

Emaitzak:

Uztailaren 10ean

2019ko
lehen
deialdia



Herriko Plaza, 3 - DERIO



Tel. 94 454 00 62 - Fax. 94 454 27 38



euskaltegia@txorierrri.eu



a: Txorierriko talde feministak

Greba feminista historikoa izan da aurten ere. Emakumeek eguneroko lanak utzi, eta kaleak eta herriak aldarrikapenez, ekintzaz eta elkartzasunez bete zituzten. Euskal Herriko mugimendu feministak adierazi duenez, aurrerapauso handia eman dute, baina oraindik urrun daude beren helburuetatik. "Urrun gaude emakumeok doan egiten ditugun lanak sozializatzen. Zaintza-sistema publikoa eta doakoa nahi dugu, baita emakumeon enplegu prekarioa deuseztatzea ere. Hala ere, Euskal Herriko erakunde nagusietan egiten diren politikek merkatuaren etekin menpean jarraitzen dute, eta emakume langileen esplotazioa indartzen dute. Familia-eredua logika patriarkaltan eraikitzen da, zaintzak feminizatzen eta pribatizatzen ditu, eta bereziki emakume arrazializatuon eta migrenteen esplotazioan oinarritzen da. Aurtengo M8an, oraindik ere, emakume asko ezin izan genuen greba egin, egoera zaurgarrietan gaudelako. Indarkeria patriarkala gogor pairatzen jarraitzen dugu: sexu-erasoak, eraso lesbofoboak, bazterkeria kapitalista, hilketa patriarkalak, jazarpen transfoboak edertasun hegemonikoa eta sistemak behartutako mendekotasuna". Horregatik, bizitzak erdigunean jarriko dituen pakto sozial berri bat eskatzen

Uholde morea



dute. "Gure lurraldeetan eta gorputzean burujabe izateko, lana eta aberastasuna modu justuan banatzeko, eta bazterreko subjektuok libre izan ahal izateko, gure aurkako biolentzia barik".

Garrasia (Sondika), Koxak (Derio), Zapata Gorriak (Zamudio), Moreak (Lezama) eta Zutunik! (Larrabetzu) talde feministek deituta, Txorierriko emakumeak ere atera

ziren kalera, jasaten dituzten indarkeria, prekaritatea eta ezberdintasuna salatzerara eta horiek ezabatuko dituzten politikak eta neurriak eskatzera. Besteak beste, kazeroladak, elkarretaratzeak, autoen karabana eta bazkaria egin ziren, eta testuak ere irakurri ziren. Martxoaren 8ak uholde morea ekarri zuen Txorierri eta orrialde hauetako irudiak utzi zizkigun.

OAKLAND ENGLISH
LEHENDAKARI LEIZADLA PLAZA, 2
ZAMUDIO
946522857

PATXI KOOP
FAXO KOOPERATIBA ELKARTEA
Herriko gurea | Lezama 4. 48170 Zamudio (Bizkaia) | Tel. 944 522 557 | info@paxi.coop | www.paxi.coop

RPA MAYORISTAS INFORMATICOS
ENPRESETARAKO INFORMATIKA
SAREEN MANTENIMENDUA
ZERBITZU TEKNIKOA
Avda. Pinoa 2C Nave 5 - 48170 - Zamudio
Tel: 944521544 - http://www.rpamayoristas.com



Unizaga Itxia Kalea, 1 | Tel.: 94 403 40 60 | info@txorierri.net
48160 - DERIO | Fax: 94 403 40 61 | www.txorierri.net
Eusko Jaurlaritzak diruz-lagundutako ikastetxea

ATEAK IREKITZEKO EGUNA

Gure instalazioak, tailerrak eta laborategiak bisita ditzakezu (18:30ean):

Apirilaren 9an
Maiatzaren 9an
Maiatzaren 30ean



Primer centro de FP de Bizkaia
distinguido con la Q de arte
Premio Vasco a la
Calidad de Gestión



OSAKUNDA
Asistencia
94-4034060



HERRI ONURAKO
SOSERATIA
COOPERATIVA DE
UTILIDAD PÚBLICA



BATXILERGOA

- Zientziak Batxilergoa

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Mekanizazio Teknikari

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Fabrikazio Mekanikoko Diseinuko Goi-mailako Teknikari
- Produktzioa Programatzeko Goi-mailako Teknikari
- Automatizazioa eta Robotika Industrialeko Goi-mailako Teknikari
- Telekomunikazioa eta Informatikako Sistemako Goi-mailako Teknikari
- Salmenten eta Merkataritza Esparruen Kudeaketako Goi-mailako Teknikari
- Ingurumen Hezkuntza eta Kontrolako Goi-mailako Teknikari

Korrika kulturala

Martxoak 31, domeka

LEZAMA

–Kuestazioa – Arropea eta petoak salgai.

Apirilak 5, barikua

LEZAMA

–17:30 Umeen jolasak.
–19:00 Zorrikorrika.
–20:00 Txokolatea eta bokatak.

DERIO

–19:30 Poteoa Orkresta Elektrotuna-gaz batera.
–21:30 Herri afaria.

Apirilak 6, zapatua

ZAMUDIO

–11:30 Kuestazioa – Arropea eta petoak erosteko aukerea.
–Umeentzako tailerrak.
–Mixerabliak musika taldea.
–Txitxi-burruntzia.

SONDIKA

–Korrika bazkaria, Ola jatetxean.

Apirilak 10, eguaztena

SONDIKA

–Korrika pasatu ostean, txokolatadea.
–17:00 Ume eta gurasoentzako dj festa, Ikurrina plazan.

Apirilak 11, eguna

LOIU

–10:15 Ikastetxeen arteko Korrika txikia.

ERANDIOGOIKOA

–Korrika pasa ostean, Flashmob-a eta txokolatadea.

Apirilak 12, barikua

ZAMUDIO

–21:00 Bertso-afaria Baserri Antzokian: Igor Elortza, Etxahun Lekue eta Oihana Bartra. Gai-jartzailea: Iratxe Ibarra. Lagatzu euskera alkarteak antolatua.

Apirilak 14, domeka

TXORIERRI

–Korrikaren bukaera-festa, Gasteizen. Txepetxa euskaltegiak autobusa antolatuko dau.

Txorierrik hiru aldiz egin

Korrikak, euskararen aldeko herri lasterketa erraldoiak, apirilaren 4an urtengo dau Garestik eta, hamar egunean Euskal Herri osotik igaro ostean, Gasteizen amaituko da hilaren 14an. Korrikak ibilbide berezia egingo dau aurten Txorierrin: apirilaren 10ean birritan sartuko da bailarara, eta hurrengo egunean be gure lurra zeharkatuko dau.

Aurreikuspenaren arabera,

Korrika Usansolotik sartuko da Larrabetzura apirilaren 10ean, 13:40ak aldean. Lezamatik, Zamudiotik, Deriotik, Larrondotik eta Sondikatik pasatu ondoren, Erandio-goikora abiatuko da, eta handik Uribe Kostara. Leioa inguruan dagoala Goierriara sartuko da eta, Txorierritik urten ostean, kostalderantz joango da. Txorierritarrok hurrengo egunean be, apirilaren 11n, hartuko dogu euskerearen lekukoa. Izan be, Korrika ostera be sartuko da bailarara: 16:25ak aldean Lutxana Erandiotik abiatuko da Erandio-goikora, handik Loiura, eta gero Uribe Butroerantz egingo dau.



Txorierritarrok, beraz, hiru aldiz egingo deusagu klik

Korrikari. Ganera, aitatu

beharra dago hainbat urteren ostean euskerearen aldeko lasterketea aurten Loiuko herrigunetik pasatuko dala.

“Larrondo auzotik igaro arren, badira urteak Loiuko herrigunetik pasatzen ez dala. Herritarrek eskatu eben ea handik be igaro leitekean, eta ibilbidea antolatu

danean ikusi da ahal dala”, azaldu deusku Olga Loroño

Etxeandia Txepetxa AEKren arduradunak. Ibilbide berezi horrek aurreko egunetan zein Korrikaren egunean bertan lan handiagoa ekarriko deuse Txorierriko arduradunei, baina pozik hartu dabe



go dau klika

erabagia
"Korrika Txo-
rierriko herri
guztietatik pa-
satuko dalako".

Loroñoren esanetan, gero eta txorieritar gehiago batzen dira Korrika-ren inguruan –batzuk egun librea be eskatzen dabe lanean– eta aurten be horrela izatea itxaroten dabe. "Halanda be, ordua dala eta, badakigu jente asko lanean egongo dala. Bestetik, eskoletako umeek Korrika handian be parte hartzeko aukerea izango dabe". Txepetxa AEKren arduradunak gogora ekarri deuskun moduan, Korrikak helburu bikotxa dauka: alde batetik, euskarearen aldeko kontzientzia suspertzea eta harrotasuna be erakustea; eta bestetik, AEKko euskaltegien egunerako lana indartzeko dirua biltzea, oraindino ez baitabe baliabide nahikorik. Materiala eta petoak euskaltegian dagoz eskuragarri.

Euskarearen lekukoa

Korrika 21. aldiz egingo da aurten, eta, ohi moduan, aurreko lasterketea amaitu zan herrialde berean hasiko da: Nafarroan, Gares herrian. Mezu sekretua

daroan lekukoa bertatik urtengo da apirilaren 4an, 17:00etan, eta egun bi beranduago Iruñera ailegatuko da. Apirilaren 7an, Donibane-Garazitik, Mauletik eta Baionatik pasatuko da, eta, Gipuzkoan sartu-urtena egin ondoren, Lapurdia eta Nafarroara sartuko da barriro. Apirilaren 9an, Nafarroa eta Araba artean sigi-saga ibili eta Bizkaira ailegatuko da hurrengo egunean. Bilbora apirilaren 11n sartuko da, eta bideari kostaldetik jarraituko deustso, Gipuzkoara barriro sartzeko. Hegoaldetik Bizkaira abiatuko da (Otxandio), eta handik barriz be sartuko da Gipuzkoara,

Gasteizerako bidea hartzeko. Mezuaren irakurketea eta jai handiaren hasierea 12:30erako aurreikusita dagoz Andra Maria Zuriaren plazan. Ibilbidea herrika eta eskualdeka dago ikusgai www.korrika.eus webgunean.

Aurten, "Klika" aukeratu dabe Korrika-ren lelotzat, "klika egitea aukera bat hartzea baita, euskarearen aukerea hartzea". Bestalde, AEK-k eta Topaguneak Korrikan be *ahobizi* eta *belarriprest* izateko deia egin dabe. "Klika eta inertiak apurtzea eskutik doazen ekintzak dira", esan dau Mertxe Mugika AEKren koordinatzaile nagusiak.

luz zamudio
ARGI APARATUAK

Nekazari kalea, 4 (lorja) Tel./Faxa 94 452 11 60
48170 Zamudio - Bizkaia

Ne-ahaindegia
M^a Antonia Llodio TDP

Txorierri etorbidea, 6
Tel.: 94 452 02 70

48170 ZAMUDIO (Bizkaia)


Familia osorako
kalitatezko arreta,
zure esku

ZERBITZU BERRIAK
Logopedia
Pedagogia
Kriminologia

**clínica dental
ZAINDUZ**
hortz klinika

Txorierri etorbidea, 9 - Lorja | Artea enpresa | 48160 DERIO
94 454 01 01 | 637 79 54 45
info@dentazainduz.com | www.dentazainduz.com

Egunak Derion



a: Jon Loidi Begoña

Jon Loidi Begoña derioztarrak azken urteotan herrian ateratako argazkiak eta egindako diseinuak ipini ditu ikusgai Kultur Birikan. Orain dela hiru urte argazki-kamara erosi eta argazkilaritza ikasketak hasi zituen. "Hasierako probak eta ibilbideak herrian bertan egin nituen; argazki asko atera ziren handik. Bestetik, bi urteko atsedenaldiaren ostean hasi nintzen diseinua berriro lantzen, eta berriro ere ipini nuen arreta herriko guneetan: eraikinetan, kaleetan... denbora ematen nuen lekuetan". Erakusketa bitxia izan da, herrira eta inguruetara egilearen ikuspuntutik eraman gaituena.





RADIO TAXI FEMADE

Zure taxi, Teorierikoa

Zamudio - Derio - Sondika - Lezama - Larrabetzu - Loiu

24h 94 480 09 09

ERRESERBAK:

www.taxisaeropuertobilbao.com

DESKARGATU APP-A



TAXI FEMADE



Hortz-klinika IDOIA ZUBIETA

Osasun-zentroa & Hortz-estetika

HORTZ-INPLANTEAK - ESTETIKA-ORTODONTZIA

Aireliza doktorea, 11. - 1. edk.
48011 BILBAO
T: 944 416 322

Urbe Plaza, 1
48170 ZAMUDIO
T: 944 521 370




HAUR-MODA
Tximeleta
 Gernikako Arbola, 8 DERIO
 94 454 14 35


tik tak
 EGUNEKO MENUA
 lehenengo platera
 bigarren platera
 postrea
 ogia
 edaria
9€
T: 94 454 55 55
 Bestorrene 5, Behea
 48160 DERIO

Jatetxea **SAN ISIDRO**
 EUSKO ORELETAN ESPEZIALIZATUA ETA ETXERO GORROGINTZA APARTA
ESKONTZAK, BATAIOAK, JAUNARTZEAK
Karta zerbitzua - Laneko zerbitzuak - Jantoki pribatuak
Jantoki bakoitzean 180 toki - Sukaldaritza tradizionala
 Telefonoa 94 454 07 86
 Fax 94 454 14 18
 Mungialde etorbidea, 25
 48190 DERIO

Milaka aurpegi, milaka kolore

a: Idoia Andres eta Juanjo Ortiz



Otsailean Inauteriak ospatu ziren bailarako herri guztietan. Sondikan hiru eguneko egitaraua prestatu zuten eta emakumezkoek protagonismo berezia izan zuten, inauteriak aurtan martxoaren 8an ospatu baitira han. Iaz, karpa bat jarri zen Sondikan; aurtan, ordea, bi. Hala ere, betiko moduan, giro aparta sortu zen eta jendetza murgildu zen ospakizunetan. Sondikakoak dira jende gehien batzen dutenak, baina ez bakarrik. Larrabetzu, Lezama, Loiu, Derio eta Zamudioko lagunak ere atera ziren kalera eta mozorroa jantzi zuten.





RUBÉN
ERLOJU-DENDA BITXITEGIA

Lehendakari Leizola plaza, 5
48170 Zamudio
94 452 14 49

ZAMUDIO
Lotería Nacionala

Leizaola L. plaza, 7
Tel.: 94 452 09 59
Faxa: 94 656 69 95
josuastorkiza@gmail.com

JB Construcciones-Reformas
IÑIGO BARCENA
Igeltserotza orokorra

Especializatea:
Xafra-lanak
Zoruak

944522910 - 665703312 - 652772016

Meditazioa mugimenduan

t: Gaizka Eguzkitza / a: Li Karate Loiu

Li, elkartearen izena, *I Ching* antzina-ko liburu txinatarretik dator, eta sua esan nahi du. Itziar Suarez duela 20 urte hasi zen tai txi eskolak ematen Loiu, Udalaren eskutik. Urte batzuk beranduago, orain dela bederatzia, zaletu batzuek taldea sortzea erabaki zuten. "Arte martzialak herrian zabaltzea genuen helburu, besterik gabe. Guk lantzen dugun arte martziala tai txi da. Izena taiji quan da, baina jendeak, laburtzeagatik, tai txi baino ez du aipatzen", esan digu Isabel Bravo taldeko presidentek.

Bravo taldeko maisua da gaur egun. "Guztira, 29 bazkide ditugu taldean, baina, egia esan, eskoletara jende gutxiago etortzen da". Ikasleen profila askotarikoa da: gazteak, nagusiak, gizonezkoak, ema-

LI KARATE LOIU TALDEA

Arte martzialak duela urte batzuk jarri ziren modan. Gaur egun, zaletasuna moteldu egin da, baina Txorierrin arte martzialetan jarduteko aukera batzuk badaude. Horietako bat Loiu dugu, Li Karate elkartearen eskutik.

kumezkoak... "Gazteenak 24 urte ditu eta 10 urte inguru darama gurekin. Era berean, nagusiak 85 urte ditu. Harro gaude, adinekoei laguntza eskaintzen diegulako". Batez ere loiu-tarrak dira Isabelen klaseetara joaten direnak, baina herritik kanpo-koek ere hurbiltzen dira: Leioatik, Sondikatik, Erandiotik, Barakaldotik...

"Ikasleek batez ere atal terapeutikoa landu nahi dute, osasuntsu ibili. Hau da, tai txi eskoletara etortzen dira lasaitasun bila, arnasa kontrolatzeko, orekari euste-

ko... Eta hori guztia lortu egiten dute". Taldea normalean frontoian aritzen da, baina beste batzuetan, eguraldi ona egiten duenean, aire librean ibiltzen gara.

Bravoren esanetan, tai txi oso arte martzial oparoa da, hainbat atal dituelako. Atal terapeutikoari lotuta, atal espirituala ere badago. "Horretan meditazioa lantzen da eta oso garrantzitsua da. Izan ere, tai txi meditazioa mugimenduan dela esaten da". Gainera, tai txiak, beste arte martzialen moduan, kirol-atala ere badu,



"Tai txi ikasleek batez ere atal terapeutikoa landu nahi dute, osasuntsu ibili"

Hainbat ikastaro antolatzen dituzte: kaligrafia txinatarra, meditazioa, mandalak egitea..."



noski. "Batez ere, formak egiten dira. Guk horiek ere lantzen ditugu taldean, baina ez dugu txapelketetan parte hartzen. Zenbat eta eskarmentu handiagoa izan, hainbat eta maila handiagoa lortzen da. Maila gerrikoaren kolorearen bidez islatzen da, karateen gertatzen den bezala: zurutik (mailarik txikiena) beltzera (mailarik altuena). Azterketa ofizialak egiten dira maila batetik bestera pasatzeko, eta azterketak batzuetan Loiu egin ditugu".

Hainbat jarduera

Tai txi eskola da taldearen jarduera nagusia, baina ez bakarria, ikastaro asko eskaintzen dituztelako. "Batzuk arte marzialei daude lotuta, eta beste batzuk, mendebaldeko kulturari. Zenbait ikastaro egin ditugu: kaligrafia txinatarra, tearen erritu txinatarra eta japoniarra, mandalak egiten ikasi ditugu, meditazioa... Aurten, esate baterako, defentsa pertsonalaren inguruko ikastaroa egingo dugu. Gainera, Loiu jaietan erakustaldiak egiten ditugu. Duela urte bi pregoia irakurri genuen jaietan eta oso harro gaude horregatik, ohore handia izan zen eta".

Li Karate Loiu taldea beste talde batzuekin -batez ere bizkaitarrekin- dabil harremanetan, ekintzak eta egiteko: Ken Ortuella, Bilboko Yamagata kluba, Chan Wu Wei elkarte, Shaolin Cultural Center Bilboko egoitza... "Horren haritik, ospe handiko adituak ekarri ditugu Loiu: Bruno Tombolato eta Jorge Martinez Burillo, kung fu maisuak; Pedro Alvarez, tai txi maisua eta kaligrafia txinatarrean aditua; Tomas Benitez Zunzunegi, akupunturan aditua; Pablo Urrutia margolaria... Itziar Suarez maisu ohia ere etortzen da batzuetan, ikastaroren bat ematera".

Informazioa: likarateloiu@gmail.com



SARRERAK AURRETIK EROSTEKO:
TXARTELDEGIAN
Edozein ekintza hasi baino
ordu bat lehenago

2D: 4 € 3D: 6 €

EL NIÑO QUE PUDO SER REY
EG-7 120' (2D)
Apirilak 7, 17:00

HABLAME DE TI
AG 100' (2D)
Apirilak 7, 19:30

DUMBO
AG 130' (2D)
Apirilak 14, 17:00

TAXI A GIBRALTAR
EG-12 92' (2D)
Apirilak 14, 19:30

*oharra: produktorearen behar-izanen arabera programazioak aldaketak jasan ditzake

Lezamako Udalak babestutako edukia

"Nik bardin-bardin gogoratzen dot; atzo balitz legez", esan deusku anaiak, Ritxar Zarate Lejarragak. "Gauza guztiak ezin dira buruan euki; baina anaiaren gehienak dodaz barruan". Lezaman gagoz, eguaztetenan afaldu ohi eben txokoan. Idazlearen lan gehienak be bertan dagoz. "Ni baino 14 urte nagusiagoa zan, eta bigarren aita zan niretzat; eta gero, anaia zaharra, laguna, dena... Berrogei urte pasatu dira, baina oraindik gainditu barik daukat bere heriotzea".

Alazne eta Gorka Zarate Gorostiola nerabeak ziran osaba hil zanean. "Mikelegaz izan nebazan hartu-emonak bideoan gelditzeko botoia sakatuta balego moduan dodaz gogoan: bazkalosteak, seminarioko gauzak... Lan-ibilbidea euskalgintzaren inguruan egin dot, eta osabearen lanagaz askotan egin dot topo. Gainera, askorentzat Mikelen loba izan naz beti", azaldu dau Gorkak. Alaznek batez be familiak kontatutakoak dauz erreferentziatzat. "Oso alaia eta bizia zan; bere filosofia zan ia-ia".

Josi Sierra Orrantia be txokoan dago. Galdakoztarra Mikel Zarateren ikaslea izan zan seminarioan, eta dokumental bat grabatzen dabil lezamarraren heriotzaren urteurrena dala eta. "Bere izakerak harrapatu egin ninduan, eskolea emoteko moduak, bere xarmak... eta kolpe handia izan zan joan zala jakin nebanean. Abadea izan arren, oso pertsona hurbila zan eta bizitzaren kontuez be egiten eban berba".


Jose Miguel Zarate eta Julia Lejarraga senar-emazteak Izagiritarren etxean (batzokia egoan etxea) bizi ziran errentan, eta Mikel bertan jaio zan 1933an. Handik urtebetera Uribarrira joan ziran bizitzera, aita-ren osaba Santik Ferrocarriles-en loterian tokatu jakon diruagaz egindako etxera. Han anaia Jon jaio zan 1936an. Nazionalek Bilbo hartu, eta aita lau urtez eroan eben preso: lehenengo, Carmeleko gartzelera; eta gero, Cuellarreko espetxera. Ondorioz, Mikel eta Jon aita barik hazi ziran euren lehenengo urteetan. Mikelek 10 urte ebazala, Lejarrenera joan ziran bizitzera amama Atanasia eta aitite Justogaz. Anaia Ritxar bertan jaio zan 1947an.

Nekaezina

Gerra denporan goiko eskoletan ikasi eban, eta, eskola barriak egin ebezan arte,

Oroitzapen bizia

Apirilean, 40 urte beteko dira Mikel Zarate lezamarra hil zala. Idazlea, irakaslea, abadea, laguna, anaia... Zaratek arrasto sakona itxi eban ezagutu eben guztiengan. Era berean, ekarpen handia eta garrantzitsua egin eutsen euskalgintzari eta euskereari. Apirilean ekitaldia egingo dute Lezaman bere omenez.



Oxangoiti taberna dagoan etxean ipini ziran eskoletan. Mikel 14 urteetara arte ibili zan eskolan. Gero aitari lagundu eutsen etxegintzan, eta handik gutxira seminari-
on sartu zan. Ritxarrek kontatu deusku nekaezina zala. "Eguna goizeko 6etatik gaueko 12ak artekoa zan berarentzat: egunero idazten eben, bategaz eta bes-

teagaz ebilen, nigaz, txokoan, futbole-
an, eskupelotan... Intentsidade handikoa zan".

Intentsidade handi horrek oso den-
pora laburrean lan oparoa egitera eroan eban. Bere obretako batzuk -12, hain zuzen be- www.mikelzarate.com web-
gunean dagoz irakurgai, Susa argitale-

*“Abadea izan
arren, oso
pertsona
hurbila zan”*

*“Eguna goizeko
6etatik gaueko
12ak artekoa zan
berarentzat”*

*“Haurgintza
minetan (1973)
liburua gau
baten idatzi eban”*



Mintxo Leizaolagaz



hasiera ekarri eban zer edo zelan. “Bizkaitarrok, beharbada, urte askoan lotsa euki dogu gure euskereagaitik, eta, idazteko modua kontuan hartuta, pentsatzen dot Mikel ahalegindu zala bizkaieratik eratorritako batua erabiltzen”. Izan ere, bizkaieria abiapuntutzat hartuta, batuarantz egin eban. “Esaten eban hizkuntza guztietan hizkuntza bakarra egoela”, gaineratu du Ritxar Zaratek.

Abade bertsolaria

Eraikuntzan ebilen poeta zan Mikel. Abadetu zanean Mallabira, Gereaa auzora, eroan eben eta, bere anaiaren eritxiz, hori giltzarri izan zan bere bizitzan. “Gerean guztiak ziran euskaldunak, eta bertsolariak. Hor hasi zan bertso munduaz eta euskara munduaz kontziente izaten”. “Idatz eta Mintz (Ipuin antzeko alegi mingotsa liburuaren barruan) idatzi ebanean esan eustan irakurtzeko eta zer ulertu neban azaltzeko”, berbea hartu dau loba Alaznek. “Nik esan neutsan Mintz aita zala, herrikoa, herriko euskerea zaintzen ebana; eta Idatz neu nintzala... Beldur eustan herriko ohiturak eta izakerea galtzeari”. Euskaraldiak Gorkari be ekarri eustan go-

txearen eskutik. Lan horreen artean, *Ipuin antzeko alegi mingotsak* (1975), *Bizipenen bultzadaz* (1978) eta *Utopiaren fantasian* (1979) azpimarratu daitezke. “*Haurgintza minetan* (1973), esaterako, gau baten idatzi eban. Oso posturazalea zan, kirolean zein bizitzaren arlo guztietan, eta esaten eban gai zala 24 orduan liburu bat idazte-

ko. Hara! Gau baten idatzi eban herri bateko bizitzea”.

Ikuspegi aurrerakoa eta zabala eban Mikel Zaratek. “Gauzak modu honetan egin behar zirala esaten eban: baserritik auzora, auzotik herrira, herritik Bizkaira eta Bizkaitik Euskadira”. Gorkaren ustez, Mikel Zaratek bizkaitarren harrotasunaren



*“Ahalegindu zan
bizkaieratik
eratorritako batua
erabiltzen”*

*“Gerean abade ebilela
hasi zan bertso
munduaz eta
euskara munduaz
kontziente izaten”*

*“Jentea «ea Mikelek
zein bertso botatzen
dauan gaur» pentsatzen
joaten zan mezatara”*

gora osabak idatzitako istorio hori. “*Ahobizi* eta *belarriprest* rolen antzekoak dira. Euskeraren ezagutza-maila oso altua da gaur egun, baina gero ez da kalean erabiltzen. Eta hizkuntzak bi oinarri dauz: alde batetik, idazten dana; eta bestetik, jenteak kalean berba egiten dauana”. “Esaten eban abizen erdaldunak ebazan euskaldun bat nahiago ebala abizen euskaldunak ebazan erdaldun bat baino”, erantsi dau Ritxarrek.

Lauroetan be ibili zan abade Mikel Zarate. “Hori ez zan ohiko mezea. Anaiak bertsoak botatzen ebazan eta baselizan auzoko baserritarrek batzen ziran, euskaldunak. Jentea «ea Mikelek zein bertso botatzen dauan gaur» pentsatzen joaten zan mezatara. Bilboko gotzaintzak bidali eutsan gutuna, mezatan ezin zela bertsozik bota jakinarazteko. Baina bardin-bardin jarraitu eban bertsoan”. Eta bertsoen haritik “Talo-txiki” lagunaren enterrua etorri jako burura

Ritxarri. “Sondikako eleizan. Sermoia bota barik hilkutxara hurbildu, eta bertsoan hasi zan. Oso hunkigarria”.

Kantagintzari be egin eutsan ekarpena. Senideek aitatu dabenez, mezatan abesten diran kanta asko Mikelek idatzitakoak dira, eta Oskorri taldeak be musikea ipini eutsen *Aita semeak* bertsoei. “Familiari aberastasun handia ekarri deusku, ze etxera kultura munduko pertsonaiak etortzen ziran bazkaltzera edo afaltzera, nahiz eta garai hatan gu oso gazteak ginan eta ez genkien nortzuk ziran; Lazkao Txiki, adibidez”, adierazo du Alaznek.

Omenaldia

Mikel Zarate 1979ko apirilaren 10ean hil zan 49 urte ebazala. Aurten, egun horretan eta bere heriotzaren 40. urteurrenaren haritik, omenaldi-ekitaldia egingo deusie Lezaman. Ekitaldia Pedro Mari

Goikoetxea kazetaria dabil antolatzen Udalarekin batera, eta 19:30etik aurrera izango da Kultur Aretoan. Bertan Mikelen lagunak hartuko dabe parte, eta Josi Sierrak zuzendutako dokumentala, *Mikelegaz 40*, ikusteko aukerea egongo da.

“Mikelek energia eta euskerea ikasteko grina emon eutsan, eta nik hori itzuli behar neutsan. Horregaitik pentsatu neban dokumentala egitea”, azaldu deusku Sierrak. Egileak 40 lagun inguru alkarriketatu dauz; herriko lagunak eta kultura munduko pertsonaiak tartean, hala nola Miren Egaña, Gontzal Mendibil eta Benito Lertxundi. Elkarriketetako batzuk YouTubean (labur.eus/mikelegaz40) ikusi daitekez. “Guztiei Mikelen gainean zerbait kontatzeko eskatu deusdanean irrifarra urten jake. Xehetasunak kontatu deustez: zelan egiten eban kartetan, zelan futbole... Eta guztiek sentipen sakon eta positibo bategaz egin dabe berba. Mikel handia zan gorputzez eta bihotzez, eta guztiek esan deuste pertsona ona, lagun ona eta lagunkoia zala”.

Familiak Mikelegaz akordau diran guztiei erakutsi gura deuste esker ona. “Guk bizirik daukagu, baina honek guztiak laguntzen dau herrian be bizirik mantentzeko”. Berrogei urteren ostean, Mikel Zarate senideen eta lagunaren oroitzapenetan bizi da. Eta bihotzean be bai.


Jon Lopategiri iparraldetik eta Txorierritik begira

t: Juan Luis Goikoetxea

"Mugaz iparraldeko Euskal Herriari" deritza iparraldea Euskaltzaindiak. Eta "Txorierrri Bizkaiko erdialdean dagoen eskualdea" dela dakar Wikipediak. Izatez, Txorierrri definizio hori baino gehiago da, eta iparraldea kilometroz baino harremanez urrunago daukagu.

HERRIA Baionan argitaratuak haxe dakar otsaileko 3488 zenbakian Jon Lopategi txapelduna dela-eta: "Berriketariak ez dute aipatu Iparraldean eta Iparraldeko bertsulariekin zozbat aldiz kantatu ukan duen 1958tik goiti Jon Lopategik. Urruñan, Donibane Lohizunen, Aiherran, Kanbon, Baionan, Irisarrin, Ahetzen, Urepelen, Alduden, Itsasun, Saran, Ezpeletan, Hazparden barna. (...). Ez dugu ahantziko" baieztatuz amaitzen du artikulua Jean-Louis Harignordoquy-k.

"Ez dute aipatu" esanez kexatzen da iparraldeko euskalduna hegoaldekoez. Ez da lehenengoz, ezta, zorritzarrez, azkenengoz gertatuko hegozentrismoa begiratzea iparraldeari. Euskal Herria bat dela diogu; ilargia



ere bakarra da, baina alde bat ilunean du.

Txorierritik begiraturik, oster, Jon Lopategi etxeko da, bertoko, joaneko bezainbat etorkizuneko, ze berak ereineko haziak dira 2019an bertso landare handi: Etxahun eta Ortzi, esaterako. Hogeita bost urte igaro dira Jonek Txorierrri institutuan ikasleak kantari jarri zituenetik; neska-mutilei bertso hotsaren beroa barreneraino sartu zietenetik.

Kontua da, egunetarik baten tabernara gonbidatu nuela bazkaltzera Jon. Jantokian jarririk, karta eskuetan dakarren zerbitzariari Lopategik:

-Nik egunekoa, kartarik ez!

-Hola bada, beste jantokira aldatu beharra duzue menua jateko zerbitzariak.

-Gaurkoagatik bertonez erantzun nuen nik.

Azkenean, menua hartu genuen. Jon Lopategi halako euskaltzalea zen, utopia motxilan zerraman bertsolari-gidaria. Pertsona txapelduna! Laguna!

Goiko argazkiaren iturria: Bertsolari aldizkaria; behekoarena: Xenpelar Dokumentazio Zentroa

RPS: 184/10

OPTIKA IKUSLAN

Arbolantxa kalea, 5; behea
ZAMUDIO
Tel.: 94 452 28 18

Peñasko
arraindegia

Mendiko, 4
48170 Zamudio
Tel.: 94 452 0808

**hotela
jatetxea
aretxarte**

Teknologi Parkea - Eraikuntza, 200
48170 ZAMUDIO - (BIZKAIA)
Telefona: 94 403 69 00
Faxa: 94 403 69 01
e-mail: hotel@aretxarte.com
e-mail: reservas@aretxarte.com
www.aretxarte.com

BC Fun Fitness GYM

EKIPAMENDU BERRIA

Segimendu
personalizatua

Zamudio (IAT ondoan)
**Prezio bereziak,
talde eta
enpresentzat**

Jarraitu

f t i YouTube

Ugaldeguren II industrialdea, partzela 9, nabe 3
628836753 - 944520815 gymtxorierrri@gmail.com

Etxeko sukaldaritza

Azalorea eta brokolia, piperrautsezko maioneseagaz

*t: Maite Lekerika / a: health.harvard.edu***Osagaiak:**

- 800 g brokoli
- 800 g azalore
- 6 berakatz-atal
- Arrautza bat
- 200 ml oliba-orioa
- Ozpina
- Koilarakada bat piperrauts ketua
- Ura, gatza eta perrexila

Prestetako area:

Brokolia eta azalorea 15 minutuan egosiko doguz, ur ugaritan eta gatzagaz. Uretatik atera, eta azpil baten ipiniko doguz. Maionesea egiteko, arrautza, orioa, gatz apur bat, ozpin-zurrusta bat eta piperrautsa ipiniko doguz edalontzi baten. Irabiagailua edalontzira sartu, eta osagaiak nahastuko doguz, irabiagailua mobidu barik. Maionesea loditzen hasten danean, irabiagailua gora eta beheara mobiduko dogu, maionesea eginda egon arte. Barazkiei gainetik bota eta labara sartuko dogu 180 gradutan. Kolorea hartzen danean, labatik aterako dogu.

Berakatzak orio apur baten prijuduko doguz eta apaintzeko erabiliko doguz. Perrexila be botako dogu apaingarri moduan.



Porru eta kuiatxo-pastela

Osagaiak:

- ½ k porru
- ½ k kuiatxo
- Azenario bi
- Urdaiazpiko ondua (dadotan)
- Lau arrautza
- 200 g esne-gain
- 20 g urun
- Oliba-orioa (lau koilarakada)
- Intxaur muskatua (koilarakada erdia)
- Piperbaltz baltza eta gatza
- Gurina

Prestetako area:

Porruak, kuiatxoak eta azenarioak ondo garbitu, eta txikituko doguz (azzenarioak aurretik zurituko doguz).

Barazkiak zartagin baten prijuduko doguz, harik eta biguntzen diran arte. Gordeko doguz. Ontzi baten arrautzak irabiako doguz. Esne-gaina gehituko dogu, eta dena ondo nahastuko dogu. Ondoren, koilarakada bat urun gehituko dogu, eta urtu arte eragingo dogu. Intxaur muskatua, piperbaltza eta gatz apur bat botako doguz. Barazkiak ondo xukatu eta ontzira botako doguz. Baita urdaiazpiko-dadoak be. Eragingo dogu, osagai guztiak ondo nahasteko.

Molde bat gurinaz igurtzi, eta hara nahasia botako dogu. Labea aurretik berotuko dogu, 200 gradutan, eta pastela sartuko dogu. Laban 25 minutuan eukiko dogu, edo gatzatzen dan arte.

ZAMUDIO-DERIOKO LURLANGILEEN ETXEA
Santi Mami buzoia, 1
Tel.: 94 454 10 06
Faxa: 94 454 12 15
48170 Zamudio (Bizkaia)

SANTI MAMI
Nerea Pedrosa Cole, 557
COOP. CANADERA ZAMUDIO DERIO
Tel.: 94 454 13 77 - 689 04 31 15
Faxa: 94 454 12 15

ERREKA ONDO ETXEA

Eguneko menua, asteburuko menu berezia, karta, enpresen bazkariak, jaunartzeak, familien bazkariak

Arteaga, 80
Zamudio 48170 (Bizkaia)
Tfnoa: 94 452 14 19
Faxa: 94 452 26 29

GORBEIA MERTZERIA

Gorbeia kalea, 7
ZAMUDIO
94 655 90 05

GAMINIZ JATETXEA

Tel/Fax: 944 317 025
email: gaminiz@gaminiz.com


Ibaizabal 212, Parke Teknologikoa
48170 Zamudio - Bizkaia
GPS: 2°51'41" N 43°17'37" W

www.gaminiz.com

Umeen txokoa: bost desberdintasunak

Ezetz bost desberdintasunak topatu irudi bien artean. Bukatzen duzunean, irudiak margotu eta moztu ahal dituzu.

a: www.orientacionandujar.es



Gomendioak

LITERATURA: NAGUSIAK

–Euskararen genesiaz (Pamiela), Juan Miguel Munarriz.

–Deklaratzekorik ez (Susa), Beñat Sarasola.

–Idazleen gorputzak (Susa), Eider Rodriguez.

–Ur biren artean (Elkar), Patxi Iturregi.

LITERATURA: GAZTEAK

–Amama eta aitita (Pamiela). Chema Heras, Rosa Osuna (Il.).

–Orain ez, Beñat (Pamiela). David Mc Kee(II.).

–Zoazi! + CD (Elkar), Josiane Valencia, Bruno Josie (Il.).



Sudokua

2	8						7
			4		1	8	
				9	2		
6							5
4		1				2	8
	5					1	
	9	5	1				4
			6			9	1
				2			5

8	5	7	3	2	6	9	4	1
1	3	6	5	4	9	7	2	8
2	4	9	7	8	1	5	6	3
4	7	1	8	9	3	2	5	6
9	8	2	6	5	7	1	3	4
5	6	3	4	1	2	8	7	9
3	9	5	2	6	8	4	1	7
6	2	8	1	7	4	3	9	5
7	1	4	9	3	5	6	8	2

AmAr
ileapaindegia

Asteartea-ostiralea:
9:00-19:00
Laburunbata:
8:00-13:30

Uribe plaza, 1 beheko
Zamudio
94 4520419

Txinbo kalea, 9
48170 ZAMUDIO
94 452 26 75

CAFE-BAR
BIDE-GORRI

Askotariko pintxoak - Plater konbinatuak
8:00etatik irekia
WIFI gunea

Carrefour
express

ORDUTEGIA
Astelchenetik ostiralera arte
9:00-14:30 / 17:00-20:30
Larunbatean
9:00-14:30

Pago kalea, 5
48170 ZAMUDIO

Azokak

Zamudio

- > Erabilitako liburuen azoka. Apirilaren 23an, Gaztestazioan, Liburuaren Eguna-ren haritik.

Erakusketak

Sondika

- > Udal ikastaroan egindako egurrezko tailak. Apirilaren 1etik 12ra, Erakusketa Aretoa.

Hitzaldiak

Larrabetzu

- > Literaturaz berbetan: *Ostadarrak lurra ukitzen duen lekua*, Edorta Jimenezen eskutik. Apirilaren 25ean, 19.00etan, Anguleri Kultur Etxean.

Ikastaroak

Derio

- > Sukaldaritza eta kosmetika naturala. Izena ematea: apirilaren 1etik 10era Kultur Birikan.

Lezama

- > Perkusioa, emakumeentzat. Apirilaren 5ean, Kultur Aretoa.

Ikuskizunak

Zamudio

- > Lur Usabiaga ipuin kontalaria. Apirilaren 27an, 11:30ean, liburutegian. Liburuaren Eguna-ren haritik.

Irteerak

Derio

- > Oja ibaia-Tiron. Haro-Casalarreina. Apirilaren 7an, 08:00etan, Nagusien Etxean. Untza mendi taldeak antolatua.
- > Bergara-Oñati. Apirilaren 14an. Izena ematea: kiroldegian.

Zamudio

- > Legazpi, Lagunandre elkarteak antolatuta. Apirilaren 6an, 08:45ean, Txorierriko Erorbideko geralekutik.
- > Durangaldeko mendiak. Apirilaren 28an, 08:00etan, Arroeta mendi taldeak antolatua.

Lezama

- > Katillotxu. Apirilaren 14an, 09:30ean, Lezamako eskolan. Gailur mendi taldeak antolatua.

Lehiaketak

Sondika

- > "Sondika Pintxotan": modalitate askea. Apirilaren 13an. Sambalu perkusio-taldeak girotuko du ekitaldia.
- > Balkoiak apaintzea. Izena ematea: apirilaren 1etik 24ra, liburutegian.

Musika

Derio

- > Ongintzako kontzertua: Cruce De Miradas. Apirilaren 5ean, 20:30ean, Gurea Aretoa. Batzen den dirua, Gure Señeak elkartearentzat.



Lezama

- > Udaberriko kontzertua: Mundakako abesbatza, Andra Mari ikastolako abesbatza (Zornotza) eta Ekidazu abesbatza (Lezama). Apirilaren 12an, 20:30ean, Andra Mari elizan.

Larrabetzu

- > Maiatz musika: Musika Eskolako ikasleen kontzertua. Apirilaren 4an, 19:30ean, Anguleri Kultur Etxean.
- > XL. Udaberriko kontzertuak: Pozalagua abesbatza (Karrantza), Xuxurlariak abesbatza (Zornotza) eta Gaztelumendi abesbatza (Larrabetzu). Apirilaren 6an, 20:00etan, Andra Mari elizan.
- > Domekak Hori Bain: Rafa Rueda. Apirilaren 28an, 18:30ean.

Bestelakoak

Zamudio

- > Arma baimena berritzeko topagunea, Zamudio Ehiza Elkartearen eskutik. Apirilaren 14an, 13:00etan, elkartearen egoitzan.



ZELAN?

POSTAZ:

Aikor!lagun fitxa(*) bete eta bidali:
Aresti, 2 behea - 48170 - Zamudio

E-POSTAZ:

aikortxori@aikor.com helbidera

TELEFONOZ:

94 452 34 47
688 86 41 35

AHOZ:

Zure herriko euskara
elkarteko kideren bati esan

(*) Fitxa aldizkarian bertan eta
erakundeetan, liburutegietan,
komertzioetan... utziko ditugun
diptikoetan topatuko duzue.



Egin zaitez Aikor!lagun

Etxe bat, lagun bat



Egin zaitez Aikor!lagun



Izen-abizenak: _____

Helbidea: _____

Telefonoa: _____

e-posta: _____

IBAN+Bankuko zenbakiak: _____

Urteko kuota: _____

Aldizkaria jasotzen duzu? _____

Sinadura _____

30 euro _____ Beste bat _____

Orri hau helbide honetara bidali:

Aikor! Aldizkaria

Aresti kalea 2, behea - 48170 - Zamudio



15/1999 Lege Organikoari jarraituz, hau jakinarazten dizugu: formulario honetan sartzen dituzun datu pertsonalak fitxategi batean gordeko dira. Fitxategiaren erantzulea TOTAN TXORIERRIKO EUSKARA ELKARTEEN FEDERAZIOA da eta datuak kudeatzeko dituen erantzukizuna hartzen du. Dena dela, edozein momentutan datuak eskuratu, baliogabetu eta zuzendu ahaliko dituzu. Horretarako, helbide honetara jo beharko duzu: ARESTI KALEA 2-BEHEA, 48170 ZAMUDIO (Bizkaia).

STIHL®

APIRILAK 6 EGUNA
ZAPATUA



Zatoz eta egun biribila izan!

Ez galdu aukera, eta zatoz esperientzia zoragarri bat bizi izatera. Zu eta zure lorategia izango zarete irabazle.
Gure produktuak ezagutzera eta probatzera gonbitatu nahi zaitugu, eskaintza handiak aprobetxatzera...
Eta sorpresak eta dibertsioa nagusi izango diren egunaz disfrutatzen!



BANATZAILE PREMIUM
BAKARRA BIZKAIA RAKO

agrojardín
Astikene

Astikene industrialdea, Berezi 23C
48160-Derio BIZKAIA
Tel.: 944 540 652 📞 688 63 31 97
astikene@agrojardinastikene.com
www.agrojardinastikene.com